



ASOCIACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE EUSKADI



Desgaitasuna indarkeria matxisten erreparazio- printzipioan txertatzeko JARRERA-DOKUMENTUA



elkartean
ARGITALPENAK
PUBLICACIONES

® elkartean, 2025



ASOCIACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Desgaitasuna indarkeria matxisten erreparazio- printzipioan txertatzeko JARRERA-DOKUMENTUA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. ESPARRU TEORIKOA	6
2.1. DEFINIZIOA	
2.2. ARAU-ESPARRUA	
2.3. OINARRIZKO PRINTZIPIOAK	
2.4. ERREPARAZIO-MODUAK	
2.5. JARDUKETA-MAILAK	
2.6. ERREPARAZIO-EREMUAK	
2.7. ERREPARAZIORAKO ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRIAK	
2.8. DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ERREPARAZIOAK DAUZKAN BEREZITASUNAK	
3. GURE AHOTSAK	34
3.1. GALDETEGIA ETA EMAITZAK	
3.2. TOPAKETAK	
4. ONDORIOAK	52

1

Sarrera



Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da, eta horren ondorioek modu sakonean eta alderdi anitzetan eragiten dute indarkeria jasaten duten emakumeen bizitzan.

Desgaitasuna duten emakumeak direnean, indarkeria horiek areagotu egiten dira hainbat egiturazko faktore eta faktore sozialen ondorioz: haien errealitateak ikusezin bihurtzea, erasotzaileekiko mendekotasuna (askotan, erasotzaileek zaintza-eginkizuna izaten dute), komunikazio-oztopoak, oztopo fisikoak eta jarrerazko oztopoak, eta erakundeek modu egokian ez erantzutea.

Emakume guztiok dugu indarkeria matxistarik gabeko bizitza izateko eskubidea. Eta estatuek genero-ikuspegia eta azterketa interseksionala aplikatzeko betebeharra dute indarkeria matxistak dauden kasuetan esku hartzerakoan. Testuinguru horretan, indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten desgaitasuna duten emakumeei erreparazioa ematea ezin da soilik justizia indibidualako neurri gisa ulertu, baizik eta agindu etiko, politiko eta sozial gisa. Kontua da eskubideak bermatzea, duintasuna berreskuratzea eta indarkeriak iraunarazten dituzten egiturak eraldatzea.

Desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria matxista ezin da ikuspegi homogeen eta sinplifikatu batetik aztertu. Indarkeria horiek egiturazko desberdinkerien sare konplexu batean kokatzen dira, sare horietan bat egiten baitute generoak, desgaitasunak, mendekotasun-egoerek, prekaritate ekonomikoak, oztopo sozialek eta kapazismoak, baita, askotan, indarkeriazko eta bazterkeriazko aurretiko ibilbideek ere.

Faktore horiek batzeak, desgaitasuna duten emakumeak egiturazko desberdinkeria-egoeran egotea eragiten du, eta horrek indarkeriaren bizipena baldintzatzeaz gain, indarkeria identifikatzeko, salatzeke, bertatik ateratzeko eta erreparazio-prozesu eraginkorrek baliatzeko benetako aukerak ere baldintzatzen ditu. Horrez gain, sistema instituzionalek ere eragina dute, askotan ez baitute onartzen faktore horien guztien interseksionalitatea, eta babesgabetasun-dinamikak edo ikusezin bihurtzeko dinamikak errepikatzen dituzte. Horregatik, erreparaziorako edozein hurbilketa ikuspegi interseksionaletik abiatu behar da nahitaez, eta onartu behar du emakume guztiak ez direla leku beretik abiatzen eta ez dutela babes, baliabide edo sinesgarritasun sozial eta instituzionaleko maila bera.

Jarrera-dokumentu hau indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek erreparaziorako duten eskubideari buruz Elkarteanen egin dugun hausnarketaren emaitza da, emakume horiek erabat sendatzeko parte erabakigarria baita, desgaitasun fisikoa duten emakumeen errealitatea eta premiak kontuan hartuta.

EMAKUME
GUZTIOK DUGU
INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO
BIZITZA IZATEKO
ESKUBIDEA

Dokumentu honen helburua da erreferentziatzeko tresna erabilgarri bat eskaintzea erreparazio eraginkor, feminista, interseksional eta eraldatzaileekin konprometitutako politika publikoak eta jarduera instituzionalak diseinatzeko.

Dokumentuak, alde batetik, erreparaziorako eskubidearen esparru teorikoa jasotzen du, desgaitasun fisikoaren ikuspegitik, eta, bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen ahotsak jasotzen ditu.

2

Esparru teorikoa



2.1. DEFINIZIOA

EUDELe eta Emakundek 2021ean egindako *“Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko toki-ko ekintzak. Udalerrien erreparazio-printzipioa aplikatzeko gida didaktikoa”* dokumentuaren arabera, **erreparazio-printzipioa** biktima guztiek (indarkeria matxista jasandakoak, edo bestelako biktimak), eragindako kalteetatik erreparazioa jasotzeko duten eskubidea da.

Estatuek indarkeria matxisten aurrean behar besteko arduraz jarduteko duten betebeharraren parte da, indarkeria matxista horiek estatuko eragileek edo partikularrek eginak izan, eta era askotako indarkeria mota edo adierazpen horiek gertatzen direnean prebentzioarekin, babesarekin, ikerketarekin eta zehapenarekin lotzen da.

Biktima izateetatik eskuratzen den eskubide horrek zeharkakotasuna izan behar du jarduteko prozedura eta maila guztietan, eta integrala izan behar du; indibiduala edo kolektiboa, materiala edo sinbolikoa izan daiteke.

Giza eskubideen ikuspegitik, indarkeriaren ondorioei erantzuteko beharraz gain, indarkeria prebentzeko eta egiturazko oinarria eraldatzeko betebeharra ere aitortu behar da.

Erreparazioa ezin da jarduketa puntualtzat hartu, ezta jasandako kalteari aurre egiteko erantzun administratibo isolatutzat ere. Prozesu integral gisa ulertu behar da, denboran iraungo duena eta emakumea erdigunean jartzen duena, emakumearen bizi-ibilbidea, bizitzan zehar metatutako indarkeriak eta indarkeria matxistako egoerak bizi izanaren ondorio ugari —emozionalak, sozialak, ekonomikoak eta instituzionalak— kontuan hartuta.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, inpaktu horiek larriagotu egiten dira egiturazko desberdinkeria-, mendekotasun- eta kapazitismo-testuinguruen ondorioz, eta horrek erreparazio-ikuspegi zabal eta sakona eskatzen du, logika asistentzial edo konpentsaziozkoa gainditzen duena.

Erreparazioak eskubideak, duintasuna eta erabakitze gaitasuna leheneratzea dakar, bai eta norberaren bizitzaren kontrola berreskuratzeko benetako baldintzak sortzea ere.

Horren harira, erreparaziorako, ezin dira neurri sinbolikoak bakarrik hartu edo emakumeek bizitako esperientziekin zerikusirik ez duten erantzun formalak bakarrik kontuan hartu; aitzitik, eskubideak benetan bermatzeko konpromiso iraunkor gisa antolatu behar da erreparazioa.

2.2. ERREFERENTZIAZKO ARAU-ESPARRUA

Indarkeria matxistaren biktimen erreparazio-eskubideak oinarri sendoa du nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko esparru juridikoan.



Nazioartean, *Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioak (CEDAW, 1979)* ezartzen du Estatu en erantzukizuna dela emakumeen aurkako indarkeria prebenitu, ikertu, zehatu eta erreparatzea. Ildo beretik, *Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Prebentzioari eta Borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena, 2011)* erreparazio integralaren ikuspegia indartzen du, eta bereziki azpimarratzen ditu eskubideen leheneratzea, errehabilitazioa eta ez errepikatzea. Era berean, *Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak (DPEK, 2006)* irisgarritasun-printzipioa sartzen du, eta diskriminazio-modu ugari eta astungarriak daudela onartzen du, eta azpimarratzen du justiziarako sarbide eraginkorra, arrazoizko egokitzapenak eta prozesu inklusiboak bermatu behar zaizkiela desgaitasuna duten emakumeei.



Estatuan, hainbat legek lagundu dute erreparazio-eskubidea partzialki garatzen. Lege hauek indarkeria-testuinguruetan emakumeei arreta, babesa eta eskubideak emateko esparruak ezarri dituzte: *Genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa*, *Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legea*, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa* eta *Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoa*. Hala ere, tresna horiek oraindik ez dute erabat garatzen erreparazio-eredu estruktural, sinboliko eta eraldatzaileak, batez ere desgaitasuna duten emakumeentzako; izan ere, desgaitasuna duten emakumeen errealitate espezifikoak oraindik ere ikusezinak dira, edo zatika lantzen dira.



Autonomia-erkidegoan, Euskadik aurrerapauso nabarmenak eman ditu *Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzarako 1/2022 Legearekin*, erreparazioa politika publikoen printzipio gidarietako bat baita, eta *1/2023 Legegintzako Dekretuarekin*, berdintasunaren arloko xedapen arauemai-leak bateratzen baititu. Horri gehitu behar zaio, besteak beste, Emakunde eta EUEDEL erakundeen lana, tresna praktikoak bultzatu baitituzte, hala nola *Erreparazio-prozesuetan tokiko ekintzak egiteko gida (2021)*. Gida horrek irizpide operatiboak eskaintzen ditu udalerriek erreparazio feminista, interseksionala, komunitarioa eta eskubideak kontuan hartuko dituen lortzeko.

Arau-esparru hori, arau bakoitzak garapen desberdina izan arren, funtsezko oinarria da politika publikoetarantz aurrera egiteko, jasandako kaltea aitortzeaz gain, egiturazko aldaketak sustatzen baitituzte justizia sozialerako, autonomiarako eta desgaitasuna duten emakumeen kasuan indarkeria iraunarazten duten baldintzen eraldaketarako.

2.3. OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Erreparazio-eskubidea ezin da soilik ulertu jasandako kaltearen konpentsazio indibidual gisa; izan ere, prozesu integral, eraldatzaile eta kolektiboa da, helburutzat duena eskubideak leheneratzea, duintasuna berreskuratzea, justizia bermatzea eta indarkerien errepikapena prebenitzea.

Oinarriztat izan behar ditu giza eskubideen ikuspegia, feminismo interseksionala eta desgaitasuna duten emakumeek jasaten dituzten era askotako zapalkuntzen aitortza artikulatzen dituzten printzipioak.

Jarraian, desgaitasuna duten emakumeekin esku hartzen denean, erreparazio eraginkorrerako edozein politika edo neurri oinarriztat izan behar dituen **funtsezko printzipioak** garatzen dira. Eta gutxieneko etiko eta juridiko gisa ulertu behar da. Hori oinarriztat hartuta administrazio publikoek, botere judizialek, gizarte-zerbitzuek eta gizarte osoak nahitaez jardun behar dute erreparazio eraginkorra, feminista, interseksionala eta eraldatzailea bermatzeko.



EGIA JAKITEKO ESKUBIDEA. Kaltea aitortzeak gertakariak, testuinguruak eta eragile arduradunak agerian jartzea dakar. Printzipio horrek kontakizuna leheneratzeko, hitza emateko eta emakumeen esperientzia duintzeko aukera ematen du. Egia jakiteko eskubideak esan nahi du:

- Emakume guztiek bizitako indarkerien aintzatespen publikoa eta instituzionala.
- Memoria kolektibo feminista eta inklusiboa eraikitzea, gertatutakoa izendatzeko eta bizirik atera direnen ahotsak (desgaitasuna duten emakumeena zein desgaitasunik gabekoena) legitimatzeko.
- Jasandako indarkerien dokumentazio sistematikoa, batez ere isilduarazitakoena edo ikusezin bihurtutakoena, eta desgaitasuna duten emakumeek familian, erakundeetan edo zainketetan jasandako indarkeriarena.



JUSTIZIARAKO SARBIDEA. Justiziarako benetako sarbidea gaitzen duen eskubidea da, hau da, gainerako eskubide guztiak egikaritzea ahalbidetzen du. Honako hauek bermatu behar dira:

- Mekanismo juridiko irisgarriak, eraginkorrak, seguruak eta desgaitasuna duten emakumeen beharretara egokituak egotea.
- Emakume guztien parte-hartze aktiboa, informatua eta berbiktimizatzen ez duena prozedura judizial eta administratibo guztietan.
- Komunikazioan arrazoizko doikuntzak eta laguntzak ezartzea, bai eta arlo judizialeko, polizialeko eta auzitegiko profesionalentzako prestakuntza espezializatua ere.



KONPENTSAZIOA, ERREHABILITAZIOA ETA LEHENERATZEA. Printzipio honek emakume bakoitzaren testuinguru interseksionalak kontuan hartu eta jasandako kaltea modu zehatz eta materialean erreparatzeko neurriak (neurri pertsonalizatuak izan behar dute) biltzen ditu. Barne hartzen ditu:

- Kalte fisiko, psikologiko, moral, ondarezko edo sozialaren arabeko kalte-ordain ekonomikoak.
- Errehabilitazio integrala: arreta psikologiko espezializatua, gizarte-laguntza, laguntza juridikoa, osasun-zerbitzuetarako eta laneratze-programetarako, hezkuntza-programetarako edo bizitoki-programetarako sarbidea.
- Urratutako eskubideak leheneratzea, hala nola seme-alaben zaintza, nortasun juridikoa edo etxebizitza eta egokitutako baliabideak eskuratzea.



EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA. Erreparazioa emakumeekin eraiki behar da, ez emakumeentzat bakarrik. Indarkeria jasan duten desgaitasuna duten emakumeen parte-hartze aktiboa eta esanguratsua bermatu behar da fase guztietan: neurrien diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluazioan.

- Emakumeak eskubide- eta aldaketa-subjektu aktibo gisa aitortzen dira, eta ez laguntza-hartzaile pasibo gisa.
- Gune irigarriak, seguruak eta askotarikoak sortu behar dira, beharrak, proposamenak eta bizipenak adierazi ahal izateko tokiak.
- Desgaitasuna duten emakumeek irisgarritasuneko eta autonomiako baldintza espezifikokoak eta komunikazio- eta erabaki-moduak errespetatuko dituzten lekuak behar dituzte.



EZ ERREPIKATZEKO BERMEAK. Printzipio hau funtsezkoa da eraldaketa lortu nahi duen erreparazio baterako. Indarkeria sortzen eta iraunarazten duten egiturazko kausetan esku hartzea dakar. Ez errepikatze bermeen barnean daude:

- Lege-erreformak eta erreforma instituzionalak, jardunbide diskriminatzaileak eta kapazitistak desagerrarazteko.
- Genero- eta desgaitasun-ikuspegia duen derrigorrezko prestakuntza sektore guztietako profesionalentzat: osasuna, hezkuntza, justizia, gizarte-zerbitzuak, polizia-kidegoak, etab.
- Benetako berdintasuna, emakumeen autonomia eta eskubideetarako sarbide unibertsala sustatzen duten politika publiko iraunkorrak eta egiturazkoak.
- Aldaketa kulturala eta sinbolikoa, hezkuntzaren, komunikabideen eta ekintza instituzionalaren bidez, desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten duten estereotipoei aurre egiteko.



PERTSONAREN ETA KONTAKIZUNAREN ZENTRALITATE-PRINTZIPIOA. Edozein erreparazio-prozesuk oinarri izan behar du emakumearen kontakizuna ezagutza-iturri legitimo gisa aitortzea. Kontakizuna ez da elementu osagarri bat, ezta elementu deskribatzaile hutsa ere, baizik eta ardatz nagusi bat, eta hortik abiatuta uler daiteke jasandako kaltea, haren esanahia eta emakumearen bizitzan duen eragina. Kontakizunaren zentralitatea aitortzeak esan nahi du:

- Emakumea erreparazio-prozesuaren subjektu aktibotzat hartzea, eta bere esperientzia, gertakarien interpretazioa eta denborak errespetatzea.
- Kontakizunaren zentralitate horrek, gainera, aukera ematen du zalantzan jartzeko kaltea emakumeen bizipenarekin zerikusirik ez duten parametroen bidez minimizatze edo berrinterpretatzeko joera duten kanpoko begiradak.

- Entzunaldi legitimo eta ez-instrumentalizu batetik bakarrik bidera daitezke behar diren erreparazio-neurriak, eta bizi izandako errealitatearekin bat datozen erantzunak eraiki



EZ BERBIKTIMIZATZEKO PRINTZPIOA. Erakundeen esku-hartzeak bermatu behar du emakumeei eskainitako prozedurek, jardunbideek eta erantzunek ez dutela kalte gehiagorik eragingo, ez eta indarkeria gehiagorik sortuko ere.

- Ez berbiktimizatzeko printzipioa betetzeko honako hauek saihestu behar dira: kontakizuna alferrik errepikaraztea, emakumearen sinesgarritasuna esplizituki edo inplizituki zalantzan jartzea, neurritz kanpoko eskakizunak eta higadura emozionala, segurtasunik eza edo babesik eza eragiten duten jardunbideak.
- Erreparazioa eraikitzeko, prozesuetan emakumeek ezin dute berriz jasan sufrimendua edo esposizioa.
- Aitzitik, kontu handiz, errespetuz eta koordinatuta esku hartu behar da, zama emozionala eta administratiboa murrizteko, eta emakumeek beren esperientziaren legitimitatea etengabe frogatu beharrik izango ez duten ingurune seguruak bermatzeko.



IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN PRINTZPIOA. Erreparazioa lortzeko, ezinbestekoa da inplikaturako baliabideak, zerbitzuak eta prozedurak emakume guztientzat irisgarriak izatea.

- Irisgarritasun unibertsalaren printzipioak eskatzen du arreta, babes eta erreparaziorako dispositiboek irisgarritasun fisiko, komunikatibo, kognitibo eta emozionaleko baldintza egokiak bermatzea, emakume bat ere ez dadin prozesutik kanpo geratu desgaitasunagatik.
- Irisgarritasunik eza ez da gabezia tekniko bat, ezta arazo txiki bat ere; aitzitik, indarkeria instituzionalaren modu bat da berez, babesa jasotzeko eta jasandako kaltearen erreparaziorako eskubideak eta baliabideak benetan eskuratzea eragozten baitu. Irisgarritasun unibertsalik gabe, erreparazio-prozesuak edukirik gabe geratzen dira, eta sistemak berak eragotzi beharko lituzkeen desberdinkeriak sortzen dituzte.



AUTONOMIAREN ETA ERABAKIAK HARTZEAREN PRINTZPIOA. Erreparazio-prozesuak emakumeen autonomia eta erabakitze gaitasuna indartzera bideratu behar dira, emakumeak eskubideen subjektu oso gisa aitortuz. Horrek esan nahi du:

- Haien denborak, erritmoak eta hautuak errespetatzea.
- Haien bizitzetan eragina duten erabakiak hartzerakoan haien nahia kontuan hartzea eta haiek benetan parte hartuko dutela bermatzea prozesuaren fase guztietan.

Hasieratik, ezinbestekoa da zalantzan jartzea eta saihestea desgaitasuna duten emakumeen borondatea ordeztzen, erabakitze gaitasuna mugatzen edo dinamika paternalistak indartzen dituzten babes-ereduak. Erreparazioa ezin da tutoretzatik edo ahotsa kentzetik eraiki, baizik eta autodeterminazioa eta erreparazio-prozesua emakumeak berak kontrolatzea bultzatuko duen errespetuzko laguntzatik.



ERANTZUKIZUN INSTITUZIONALAREN PRINTZIPIOA. Erreparazioa ezin da izan soilik emakumeen kontua, eta ez dagokio soilik erresilientziarako, egokitzeko edo kaltea gainditzeko gaitasun indibidualari. Erantzukizun instituzionalaren printzipioak eskatzen du:

- Erakundeek, babes-sistemek eta esku hartzeko dispositiboek jasandako kaltea sortzen, iraunarazten edo larriagotzen lagundu dutela onartzea, dela egiteagatik, ez-egiteagatik, irisgarritasunik ezagatik edo berbiktimizatzen duten jardunbideengatik.
- Ikuspegi horretatik, erakundeek beren erantzukizuna onartu behar dute, sistemaren akatsak aitortu behar dituzte eta konpromiso aktiboa hartu behar dute denboran iraungo duten benetako erreparazio-prozesuekin. Erreparazioa ez da zama indibidual bat, ezta emakumeei zuzendutako eskakizun moral bat ere, baizik eta eskubideak benetan bermatzeari lotutako erantzukizun kolektibo eta instituzional bat.

Erreparazioak oinarritzat dituen **printzipio** horiek ezinbesteko esparru etiko eta politikoa eratzen dute indarkeria matxista bizi izan duten desgaitasuna duten emakumeentzat edozein esku-hartze bideratzeko.

Printzipio horiek ez dira adierazpen abstraktu gisa ulertu behar, baliabideen diseinua, arreta-prozedurak eta jardunbide profesionalak zeharkatzen dituzten irizpide operatibo gisa baizik.

Ikuspegi horretatik bakarrik eraiki daitezke kaltea errepikatzen ez duten erreparazio-prozesuak, emakumeek bizitako esperientzia aitortzen dutenak eta eskubideak baliatzeko, duintasuna berreskuratzeko eta erabakitze gaitasuna indartzeko benetako baldintzak bermatzen dituztenak.

Erreparazioak koherentzia eskatzen du diskurtsoaren eta jardunbide instituzionalaren artean, bai eta konpromiso iraunkorra ere esku-hartze irisgarriekin, errespetuzkoekin eta emakumeak pertsona eskubidedun gisa ardatz dituztenekin.

2.4. ERREPARAZIO-MODUAK

Erreparazioa prozesu integral, eraldatzaile, dimentsioaniztun eta jarraitu gisa ulertu behar da, indarkeria matxista pairatu duten emakume guztiei eskubideak, duintasuna eta autonomia leheneratzera bideratua.

Ez da konpentsazio ekonomikoa soilik: urratutako eremu guztietan eragin behar du —eremu pertsonala, soziala, juridikoa, ekonomikoa, sinbolikoa eta egiturazkoa—, eta desgaitasuna duten emakumeek jasaten dituzten inpaktu bereziak aitortu behar ditu.

Erreparaziorako Eskubideari buruzko Nazio Batuen Printzipio eta Jarraibideen arabera (60/147, 2005 Ebazpena), bost erreparazio-modu nagusi aitortzen dira, eta modu konbinatuan eta emakume bakoitzaren testuingurura eta beharretara egokituta aplikatu behar dira, batez ere desgaitasuna dutenean:



LEHENERATZEA. Leheneratzearen helburua da, ahal den neurrian, eskubideak urratu aurreko egoera pertsonala eta soziala berrezartzea. Besteak beste, etxebizitza egoki bat eskuratu ahal izatea, seme-alaben zaintza itzultzea, lanera itzultzea edo lan-merkatuan sartzea, dokumentazio pertsonala berreskuratzea, eta deuseztatu edo urratu diren eskubide juridikoak aitortzea.

Hala ere, leheneratzea ezin da soilik ulertu indarkeriaren aurreko eskubide edo egoeren berreskuratze formalizat; izan ere, sarritan, aurreko egoeran, jadanik ba zeuden egiturazko desberdineriak, mendekotasuna, bazterkeria edo laguntza egokirik eza. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, eskubideen galera zein indarkeriak eragindako autonomiaren, konfiantzaren eta bizi-proiektuaren narriadura kontuan hartuko dituen ikuspegi integral batetik heldu behar zaio leheneratzeari.

Leheneratzea, beraz, kendutakoa itzultzeaz gain, emakumeak bizitza duina, autonomia eta segurua berreraiki ahal izateko behar diren baldintzak sortzea da. Horren barruan sartzen dira etxebizitza irisgarri eta egoki bat benetan eskuratzea, amatasuna eta zaintza berdintasun-baldintzetan gauzatzeko bermea, behar dituen laguntzekin enplegura itzultzea, dokumentuak eta urratutako eskubide juridikoak leheneratzea, bai eta emakumearen erabakitzeko gaitasuna aitortzea ere, infantilizazio-jardunbideak, ezkutuko tutoretza edo haren kontakizuna sistematikoki zalan-tzan jartzea alde batera utzita.

Ikuspegi horretatik, leheneratzeak ezin ditu neurri zehatz edo formalak bakarrik barne hartu; aitzitik, bermatu egin behar du norberaren bizitzaren gaineko kontrola berrezartzea, eragindako kalte soziala erreparatzea eta emakumea mendetasun-egoerara, arrisku-egoerara edo berbiktimizazio instituzionaleko egoerara ez itzultzea.



KALTE-ORDAINA. Kalte-ordaina jasandako kalteengatik (kalte materialak zein ez-materialak) jasotzen den konpentsazio ekonomikoa da. Barne hartzen ditu kalte fisiko, psikologiko eta moralak, galera ekonomikoa eta ondarezkoak, aukerak galtzea, sortutako kaltea eta lortu gabeko irabazia, luzaroan bizitako sufrimendua edo izen onari egindako kaltea.

Hala ere, kalte-ordaina ezin da soilik kaltearen kuantifikazio ekonomikotzat hartu, ezta jasandako indarkeria berez leheneratzeko gai den neurritzat ere. Erreparazio-prozesuetan, kalte-ordainak balio sinbolikoa eta erreparatzailea hartzen du, eragindako kaltea eta kalte horren aurrean gizarteak eta erakundeek duten erantzukizuna esplizituki aitortzea dakarrelako.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, kalte-ordaina bereziki garrantzitsua da jasandako kalteak osasunean, autonomian, baliabideak eskuratzean, egonkortasun ekonomikoan edo bizi-proiektuan luzaroan ondorioak izan dituenean. Konpentsazio ekonomikoak indarkeriaren ondorio materialen zati bat murrizten lagun dezake —baita desgaitasunak dakartzan gaitzesak ere—, eta berreskuratze-prozesuak bultzatu ditzake, betiere ez bada hartzen konponbide isolatu gisa edo beste erreparazio-neurri batzuen ordezkotzat gisa.

Ikuspegi horretatik, kalte-ordainak ez du erreparatzen bizitako kaltea ezabatzen duelako, baizik eta izendatu egiten duelako, aitortzen duelako eta erantzukizun kolektiboaren eremuan kokatzen duelako, eta saihestu egiten du indarkeriaren zama indarkeria jasan duen emakumeari soilik ezartzea.



ERREHABILITAZIOA. Errehabilitazioak emakumea erabat indarberritzeko behar diren neurriak biltzen ditu. Honako hauek jaso behar ditu: osasun eta osasun mentaleko arreta, laguntza psikologikoa espezializatua, laguntza soziala eta juridikoa, laguntza teknikoak, desgaitasunari egokitutako laguntza-produktuak eta zerbitzuak, bai eta autonomia pertsonalera eta ahalduntzera bideratutako programak ere.

Errehabilitazioa ezin da ulertu prozesu estandarizatu gisa, ezta esku-hartze klinikoa soilik kontuan hartzen duen prozesu gisa ere, baizik eta ibilbide pertsonal eta etengabe gisa, zeinak aukera ematen baitio emakumeari bizi izandako kaltea lantzeko, haren ondorioak ulertzeko eta, ahal den neurrian, ongizatea, autonomia eta bere bizitzaren gaineko kontrola berreskuratzen. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, prozesu horrek arreta berezia eskatzen du, eta jasandako indarkeriaren nahiz desgaitasun-egoeraren ondorio diren eritmo, behar eta laguntza espezifikoak kontuan hartu beharko dira.

Errehabilitazioa eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da baliabide sanitarioek, psikologikoez, sozialez eta juridikoez modu koordinatuan eta irisgarrian jardutea, eta sahiestu egin beharko dira esku-hartze zatikatuak, testuingurutik kanpokoak edo berbiktimizatzaileak. Zerbitzuek egokitzapenik ez edukitzeak, laguntza espezifikorik ezak edo kaltearen alderdi emozional eta sozialak arretarik ez jasotzeak errehabilitazioa sufrimendu-iturri bihurtu dezakete, erreparazio-prozesu bat izan beharrean.

Ikuspegi horretatik, errehabilitazioa erreparazioaren ardatz nagusia da, emakumeari aukera ematen baitio bizi-proiektua segurtasun, autonomia eta duintasun

handiagoko posizio batetik berreraikitzeke, bere esperientziatik kanpoko denbora, itxaropen edo emaitzarik inposatu gabe.



GOGO BETETZEA. Gogobetetzeak duintasuna berreskuratzeko eta jasandako kaltea ikusarazteko neurri sinboliko, instituzional eta sozialak biltzen ditu. Besteak beste, barkamen publikoak eta aitoren instituzionala, memorialak, omenaldi edo erreparazio moraleko ekitaldiak, epai bidegabeen edo prozesu berbiktimizatzaileen berrikuspenak, indarkeria edo diskriminazioa betikotzen duten ikurrak ezabatzea, eta emakumeen eskubideak aitortzen eta bermatzen dituzten lege-erreformak.

Hala ere, gogobetetze-neurriek erreparazio-izaera hartzen dute soilik emakumeak berak bizi izandako indarkeriaren behar besteko aitorentzat eta aitoren esanguratsutat hartzen dituenean. Ikuspegi horretatik, gogobetetzea ezin da parametro instituzionalak edo formalak soilik kontuan hartuta eraiki; emakumearen esperientzia, ahotsa eta beharrak barne hartu behar ditu, eta keinu sinboliko hutsek edo emakumearen errealtatearekin loturarik ez dutenak saihestu behar ditu.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, gogobetetzeak berekin dakar esplizituki aitortzea indarkeria matxista eta desgaitasuna elkartzeak dakarren kaltea, bai eta gertatu ahal izan diren urraketa instituzional, sozial eta juridikoak ere. Aitortza publikoak, jarduera bidegabeak edo berbiktimizatzaileak berrikusteak eta neurri sinbolikoak hartzeak erreparazioa ekarriko dute soilik, lagungarriak baldin badira emakumearen kontakizunari zilegitasuna itzultzeko, emakumearen duintasuna berreskuratzeko eta indarkeria horien ikusezintasun historikoa hausteko.

Ikuspegi horretatik, gogobetetzeak lotura zuzena du kaltearen baliozkotze sozial eta instituzionalarekin, erantzukizunen aitorenarekin eta bizitako esperientzia ez dela ukatua, minimizatua eta isildua izango bermatzearekin; beraz, erreparazio-prozesuaren funtsezko elementua da.



EZ ERREPIKATZEKO BERMEA. Ez errepikatzeke bermeek indarkeriaren egiturazko kausetan eragitea dakarte, jasandako eskubideen urraketak etorkizunean errepika ez daitezen. Berme horiek honako hauen bidez gauzatu behar dira: ikuspegi feminista eta interseksionala duten lege-erreformak eta politika publikoak; eragile juridikoek, sanitarioek, hezkuntzakoek eta sozialek desgaitasunari buruzko prestakuntza nahitaezkoa izatea; erakundeak kontrolatzeko eta kontuak emateko mekanismoak ezartzea; eta desgaitasuna duten emakumeenganako indarkeria betikotzen duten imajinario sozialak, kulturalak eta kapazitistak eraldatzea.

Erreparazioaren ikuspegitik, ez errepikatzeke bermeak ez du esan nahi arau- edo prestakuntza-neurriak soilik hartzea; aitzitik, erakundeek benetako konpromisoa hartu behar dute jardunbide, prozedura eta erabaki berbiktimizatzaile edo baztertzailak berrikusteko. Horretarako, zuzenbide-estatua eta babes-sistemak indartu

behar dira, desgaitasuna duten emakumeen eskubideak modu eraginkorrean aitortu, errespetatu eta bermatzen direla ziurtatzeko.

Horren harira, ez errepikatzeko bermeak helburutzat izan behar du egiturazko baldintzak sortzea, emakume bakoitzaren errealitate espezifikoak ezagutu eta ulertzeko, haren premiei ikuspegi integral batetik erantzuteko eta beste indarkeria-egoera edo kalte instituzionaleko egoera batzuk prebenitzeko. Horrela bakarrik egin daiteke aurrera erreparazio global baterantz, jasandako kaltearen ondorioei erantzuteaz gain, kalte hori posible egin zuten testuinguruak eraldatzen lagunduko duen erreparazio global baterantz.

Beraz, ez errepikatzeko bermeak erreparazio-prozesuaren funtsezko elementua dira; izan ere, desgaitasuna duten emakumeen esperientzia ukatzen, minimizatzen edo zalantzan jartzen duten jardunbide instituzional, sozial edo kulturelek eragiten duten indarkeria berriz ez gertatzea edo errepikatzea ziurtatzen dute.

Azaldutako erreparazio-moduak elkarri lotuta dauden prozesu integral baten elementu gisa ulertu behar dira. Prozesu horrek indarkeria matxistak eragindako kalteari giza eskubideen, feminismoaren eta interseksionalaren ikuspegitik erantzun dio. Leheneratzea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, gogobetetzea eta ez errepikatzeko bermeak ez dira neurri isolatuak edo baztertzailak, baizik eta emakume bakoitzaren errealitate zehatzari modu koordinatuan eta egokitan aplikatzen direnean bakarrik erreparazio-jarduera bihurtzen diren jarduera osagarriak.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, erreparazio-modu horiek indarkeriaren, egiturazko oztopoen eta indarkeria instituzional erantsien inpaktu bereizgarria aitortzetik abiatu behar dira, eskubideak benetan baliatzea eragozten baitute. Erreparazioa, beraz, ezin da erantzun formal edo estandarizatu hutsa izan; aitzitik, duintasuna, autonomia eta norberaren bizitzaren gaineko kontrola leheneratzera bideratu behar da, eta berbiktimizazio-egoerak saihestu eta prozesu benetan eraldatzaileak bermatu behar ditu.

2.5. JARDUKETA-MAILAK

Erreparaziorako bost moduak (leheneratzea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, gogobetetzea eta ez errepikatzeko bermea) lau jarduketa-mailatan sailka daitezke, nori zuzentzen zaion kontuan hartuta. Sailkapen horri esker, uler daiteke erreparazio-moduak ez direla emakumearentzako bakarrik, baizik eta hainbat mailalara zabal daitezkeela eta zabaldu behar direla: maila indibidualera, kolektibora, sinbolikora eta egiturazkora. Horrela, erreparazio-modu bera modu desberdinean adieraz daiteke zein mailatarako den kontuan hartuta, eta pertsonak, komunitateak, erakundeak edo gizarte-sistema osoa egon daitezke inplikaturak.

Jarduera-maila guztiak kontuan hartzea bereziki garrantzitsua da soilik esku-hartze indibidualean arreta jartzen duen erreparazioaren ikusmolde murriztailea saihesteko, eta indarkeria matxistak eragindako erreparazioaren erantzukizun kolektiboa eta instituzionala azpimarratzeko.



ERREPARAZIO INDIBIDUALA: emakume bakoitzaren eskubideak leheneratzeko neurrien multzoa da, bizi-ibilbidearen, indarkeria-motaren eta egoera pertsonalaren arabera, non emakumea baita bere erreparazio-prozesu pertsonalaren protagonista.

Erreparazio indibidualaren zentralitatea bereziki garrantzitsua da desgaitasuna duten emakumeen kasuan; izan ere, sarritan, haien indarkeria-esperientziak zalantzan jarri dira, minimizatu egin dira edo ingurune sozial eta instituzionalak zuzenean ikuszez inbidiatu dituzte. Kontakizunarekiko mesfidantzak, bizitako ulertzeko edo kontatzeko gaitasuna zalantzan jartzeak eta jasandako indarkeria ez aitortzeak kalte erantsia eragiten dute, eta horrek zuzenean eragiten du norberaren identitatean, autoestimuan eta esperientziaren legitimitate-pertzepzioan.

Testuinguru horretan, erreparazio indibidualak funtsezko balioa hartzen du, kaltea aitortzeko, kontakizuna baliozkotzeko eta jarduteko gaitasuna leheneratzeko gune gisa. Desgaitasuna duen emakumeari bere historia berreraikitzen laguntzea esan nahi du, bere ahotsa erdigunean jarrita, bere denborak, erabakiak eta beharrak errespetatuz, eta laguntza egokiak bermatuz, bere bizitzaren eta erreparazio-prozesuaren kontrola berreskuratzeko.

Ikuspegi horretatik, erreparazio indibiduala ezin da esku-hartze estandarizatu hutsa izan; aitzitik, prozesu pertsonalizatua, irisgarria eta jardunbide birbiktimizatzaile gabea izan behar du, desgaitasuna duen emakumea eskubideen subjektu oso gisa eta bere erreparazioaren eragile aktibo gisa aitortuko duena.



ERREPARAZIO KOLEKTIBOIA: historikoki eskubideak urratu zaizkien taldeak aintzatestea eta artatzea du helburu, hala nola desgaitasuna duten emakumeak, emakume arrazializatuak, migratzaileak, adinekoak, landa-eremukoak edo instituzionalizatuak. Erreparazio kolektiboak aukera ematen du indarkeriaren lanketa indibiduala gainditzeko eta esparru sozial eta historiko zabalago batean kokatzeko, eta aitortzen du kaltearen esperientzia asko ezin direla modu isolatuan ulertu, sistematikoki gutxiagotasun-, bazterkeria- edo anormaltasun-posizioetan kokatutako kolektiboetako kide izatearekin lotuta baizik.

Horren harira, erreparazio kolektiboaren abiapuntua ez da talde jakin batzuk berez zaugarriak izatea, baizik eta posizionamendu sozial, kultural eta instituzionalak sortzen dituela eskubide-urraketak eta indarkeria jasateko arriskua. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, indarkeria matxista larriagotu egiten dute egitura kapazitistek, haien gizarte-balioa, sinesgarritasuna eta bizitza autonomia izateko eskubidea zalan-tzan jartzen baitituzte.

Ikuspegi horretatik, erreparazio kolektiboak berekin dakar urraketan ibilbide partekatu horien aitorten publikoa eta soziala egitea, jasandako indarkeriak ikusaraztea eta esperientzia komunak kontuan hartuko dituzten erantzunak eraikitzea, historia indibidual bakoitzaren berezitasuna lausotu gabe. Horrela, erreparazio kolektiboa lagungarria izaten da bazterkeria legitimatu duten gizarte-esparruak eraldatzeko eta historikoki kaltea eragin zaien kolektiboentzat justizia eta ekitate handiagoko baldintzak sortzeko.



ERREPARAZIO SINBOLIKOA: memoria kolektiboa eraikitzea, kaltearen aitorten instituzionala egitera eta indarkeriak ikusaraztera bideratutako ekintzak biltzen ditu. Ekitaldi publikoetan, araudi-aldaketetan, komunikabideetan edo kultura-ekimenetan gauzatzen da.

Erreparazio sinbolikoa funtsezkoa da, aukera ematen baitu gizartean egunero errepikatzen diren eta indarkeria matxista eta beste diskriminazio mota batzuk normalizatzen, ikusezin bihurtzen edo justifikatzen laguntzen duten indarkeria sinbolikoak interpellatzeko. Indarkeria sinboliko horiek imajinario sozialek, diskurtsoek, jardunbide eta arauk babesten dituzte. Horiek egokitzen, normalizatzen edo baliotsutzat jotzen dena definitzen dute, eta pertsona eta kolektibo jakin batzuk esparru horietatik kanpo kokatzen dituzte.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, indarkeria sinbolikoa askotan begirada paternalisten bidez, sinesgarritasuna ukatuta, infantilizazioaren bidez edo esperientziak deslegitimizatuta adierazten da. Jardunbide horiek, indarkeriazko forma esplizituak hartzen ez badituzte ere, kalte sakona eta iraunkorra eragiten dute, eta kalte hori aitortu eta erreparatu egin behar da.

Ikuspegi horretatik, erreparazio sinbolikorako ez dira nahikoa oroitzapenezko edo adierazpenezko ekintzak; aitzitik, bazterkeria eta kaltea iraunarazten duten diskurtso, irudipen eta jardunbide sozialak berrikusteko eta eraldatzeko prozesu kontziente bat burutu behar da, are gehiago desgaitasuna duten emakumeak direnean. Aitorpen horren bidez eta memoria kolektibo kritiko bat eraikiz bakarrik egin daiteke aurrera erreparazio esanguratsu bat lortzeko eta gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat lortzeko bidean.



EGITURAZKO ERREPARAZIOA: indarkeria ahalbidetzen edo legitimatzen duten gizarte-, arau- eta kultura-egiturak eraldatzea du helburu. Generoagatiko eta desgaitasunagatiko desberdinkeriak betikotzen dituzten logika instituzionalak, lege-esparruak eta botere-dispositiboak berrikustea dakar.

Egiturazko erreparazioaren abiapuntua da aitortzea indarkeria matxista ez dela gertakari isolatu bat, ezta indibiduala soilik ere; aitzitik, desberdinkerian oinarritutako botere-harremanetan antolatutako gizarte patriarkal baten esparruan (gizonek pribilegiozko posizioak baitituzte emakumeen aldean) gertatzen eta errepikatzen da. Egiturazko desberdinkeria horiek larriagotu egiten dira desgaitasuna duten emakumeen kasuan, desabantaila handiagoko egoeran baitaude generoa eta desgaitasunaren arteko interseksionalitatearen ondorioz.

Ikuspegi horretatik, egiturazko erreparazioak berekin dakar hierarkia horiei eusten dieten pribilegioak, arauak eta jardunbideak zalantzan jartzea eta eraldatzea, bai eta desgaitasuna duten emakumeen bazterkeria, mendekotasuna eta deslegitimazioa normalizatzen dituzten mekanismo sozial eta instituzionalak suntsitzea ere. Kontua ez da soilik arauak aldatzea, baizik eta sakon berrikustea indarkeria eta desberdinkeriak errepikatzen dituzten gizarte-antolamenduko ereduak, babes-sistemak eta jardunbide instituzionalak.

Illo horretan, egiturazko erreparazioa ezinbesteko ardatza da benetako erreparazio iraunkorra bermatzeko; izan ere, indarkeria ahalbidetzen duten baldintzak aldatu nahi ditu, berdintasunezkoagoak diren gizarte-harremanak bultzatu, eta desgaitasuna duten emakumeen eskubideak benetan aitortu eta bermatzen direla ziurtatu.

2.6. ERREPARAZIO-EREMUAK

Erreparazioa eraginkorra, interseksionala eta eraldatzailea izan dadin, eta denboran iraun dezan, zeharka eta modu koordinatuan esku hartu behar du indarkeria matxista pairatutako desgaitasuna duten emakumeen bizitzako esparru guztietan. Horrek esan nahi du ondorio zuzenei eta desgaitasuna duten emakumeei modu bereizgarrian eragiten dieten egiturazko faktoreei heldu behar zaiela.

Ikuspegi horretatik, erreparazio-eremuak elkarri lotutako eremutzat hartu behar dira, eta erantzun koordinatuak behar dituzte. Gainera, esku-hartze partzialak edo zatikatuak saihestu behar dira, beste desberdinkeria- edo berbiktimizazio- modu batzuk sor ez daitezzen.

1 / EREMU psikosoziala

Indarkeria matxistak arrasto sakonak uzten ditu emakumeen ongizate emozional, psikologiko eta harremanezkoan. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, ondorio horiek larriagotu egin daitezke isolamenduaren, laguntza egokirik ez izatearen eta erakundeek ikusezin bihurtzearen ondorioz.

Eremu horretako erreparazioak honako hauek jaso behar ditu:

- **Banakako laguntza psikologikoa** eta desgaitasuna duten emakumeen premia espezifikotara egokitua.
Banakako laguntza psikologikoa funtsezkoa da indarkeriaren inpaktu emozionalari eta psikologikoari aurre egiteko, eta aukera ematen dio emakumeari bizitako kaltea lantzeko, autoestimua indartzeko eta bere buruarekiko konfiantza berreskuratzeko, betiere esku-hartze irisgarriak eta bakoitzaren komunikazio-gaitasunari, ulermen-gaitasunari eta erritmoari egokituak badira.
- **Berdinen artean ahalduntzeko eta elkarri laguntzeko topaguneak**, irisgarritasuna bermatuta.
Berdinen artean ahalduntzeko eta elkarri laguntzeko topaguneak lagungarriak izaten dira elkar aintzatesteko, isolamendua hausteko eta partekatutako esperientziak baliozkotzeko, eta erreparazio kolektiboa eta nortasuna sendotzea bultzatzen duten laguntza horizontaleko prozesuak sortzen dituzte.
- **Laguntza komunitarioko eta profesionaleko sare egonkorrak**, autonomiaren ikuspegi ez-paternalista kontuan hartuta lan egiten dutenak.
- **Gizarte-laguntza etengabea**, zatiketa instituzionalik gabe eta emakumearengan zama gehiegi jarri gabe.

Bestalde, laguntza komunitarioko sareek eta gizarte-laguntza etengabeak aukera ematen du leheneratze-prozesuek luzaroan irauteko, eta egonkortasuna, orientazioa eta laguntza praktikoa eskaintzen dute, emakumeari baliabideak koordinatzeko edo sistema zatikatuak kudeatzeko ardura eman gabe. Autonomia ez-paternalistaren ikuspegitik, laguntza horiek lagungarriak izaten dira erabakitze gaitasuna indartzeko eta desgaitasuna duten emakumeen babesgabetasun- edo berbiktimizazio-egoerak prebenitzeko.

2/ EREMU Legala eta judiziala



Eremu horretan, justiziarako sarbidea izatea erreparazioaren alderdi garrantzitsuena da, eta, zehatzeko edo eskubideak formalki aitortzeko funtzioa betetzeaz gain, erreparazio-prozesuaren funtsezko elementua da, emakumeari aukera ematen baitio jasandako kaltea aitortua ikusteko, haren kontakizuna legitimatzeko eta erantzukizuna bere baitatik kanpo kokatzeko. Hala ere, emakume askok prozesu judizial ulertezinak, berbiktimizatzaileak eta baztertzatzaileak bizi izaten dituzte, bereziki desgaitasuna duten emakumeek

Prozedura judizialak konplexuak, ulertezinak edo berbiktimizatzaileak direnean, justizia-sistema beste kalte-iturri bat gehiago bihur daiteke, erakundeekiko mesfidantza eta bitzako sufrimendua larriagotzen dituena.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, egokitzapen egokirik ez izateak, komunikaziorako laguntzarik ez izateak edo prozesu judizialean infantilizatzeak justiziarako sarbidea ukatzen die, eta babesgabetasun-dinamikak indartzen dituzte. Aitzitik, irisgarritasun-neurriak eta prestakuntza espezializatua txertatzeak eta erreparazio-ikuspegia duten epaiak emateak, eskubideak bermatzeaz gain, emakumeen duintasuna, autonomia eta erakundeekiko konfiantza berreskuratzen ere laguntzen du.

Ikuspegi horretatik, erreparazioak helburutzat izan behar du lege-eremuan eta eremu judizialean berbiktimizazioa errepikatzen duten prozedurak eta jardunbideak eraldatzea, eta errespetuzko prozesuak, ulergarriak eta desgaitasuna duten emakumeen eskubideetan oinarritutakoak ziurtatu behar dituzte, erreparazio integrala lortzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Eremu horretan benetako erreparazioa bermatzeko, honako hauek inplementatu behar dira:

- **Salaketa-mekanismo irisgarriak eta ulergarriak** (irakurketa erraza, interpreteak, komunikaziorako laguntzak).
- **Prozeduraren arrazoizko doikuntzak** prozesu judizial osoan.
- **Erreparazio-neurri espezifikoak**, indibidualak zein kolektiboak, **dituzten epaiak**.
- Justiziako profesionalentzako derrigorrezko **prestakuntza** genero-ikuspegiaren, desgaitasunaren eta interseksionalitatearen arloan.
- Desgaitasuna duten emakumeen **berbiktimizazioa, tutoretza edo infantilizazioa** saihestuko duten esku hartzeko protokoloak.

3 / EREMU Ekonomiko eta lan-EREMUA



Indarkeria matxistak zuzenean eragiten dio autonomia ekonomikoari, eta pobrezia, mendekotasuna eta lan-merkatutik kanporatzea eragiten ditu. Eragin hori are larriagoa da desgaitasuna duten emakumeen kasuan, haien langabezia-tasa eta prekariedade-tasa handiagoak baitira.

Erreparazio-ikuspegi batetik, eremu ekonomiko eta lan-eremuko esku-hartzeak autonomia erreal eta iraunkorreko baldintzak bermatu behar ditu, eta ekidin egin behar dira desgaitasuna duten emakume askok bizi duten mendekotasuna edo prekariedadea errepikatzen duten erantzun asistentzialistak.

Erreparazio ekonomikoak honako hauek jaso behar ditu:

- **Zuzeneko laguntza ekonomikoak**, zigor-baldintzarik eta baldintza murriztailerik gabe.
- Etxebizitza babestua eta egokitua **lehentasunez eskuratzeko aukera**.
- Enplegu babestuko programak, aukerarik egokiena denean, **enplegu lagundua, beharrezkoa denean, eta prestakuntza eta laneratze inklusiboa**.
- **Autoenplegua, gizarte-ekintzailtza eta kooperatibismoa** sustatzea, laguntza teknikoekin.
- Desgaitasunak eta jasandako indarkeriak eragindako **kostu gehigarriak airtortzea**.

4 / Hezkuntza- eta kultura- ESPARRUA



Erreparazioak alderdi pedagogiko, sinboliko eta eraldatzailea izan behar du, indarkeria normalizatzen edo ikusezin bihurtzen duten imajinarioei eragingo diena.

Erreparazio-prozesuetan hezkuntza- eta kultura-alderdia sartzeari funtsezkoa da; izan ere, izendatzen ez denak, irakasten ez denak eta erakusten ez denak ikusezin izaten jarraituko du, eta, beraz, behin eta berriz errepikatzen da. Desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria matxista ez bada esplizituki txertatzen hezkuntza-edukietan eta kultura-eremuetan, indarkeria hori kontakizun kolektibotik kanpo geratuko da, eta indarkeria hori normalizatzen edo ukatzen duten imajinarioak betikotu egingo dira.

Ikuspegi horretatik, hezkuntzaren eta kulturaren eremuko erreparazioak, funtzio pedagogikoa edo sinbolikoa betetzeaz gain, gizartea eraldatzeko funtsezko tresna ere bada, kontzientzia kritikoa sortzen, bizitako esperientziak legitimatzen eta erreferenteak eraikitzen laguntzen baitu, desgaitasuna duten emakumeak eskubideen subjektu, kultura-sortzaile eta beren historiaren protagonista gisa aitortzeko.

Eremu horretan sartzen dira:

- **Eskola-materialen eta hezkuntza-curriculumen berrikuspen kritikoa**, ingenero-ikuspegia eta desgaitasuna txertatuta.
- **Hezkuntza afektibo-sexual integrala eta inklusiboa**, gaitasun kognitibo eta komunikatiboetara egokitua.
- **Sentsibilizazio kultureko kanpainak**, desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria ikusarazteko eta erreferente positiboak sustatzeko.
- Bizirik atera diren emakumeen **ekoizpen artistikoa, ikus-entzunezkoa eta literarioa** babestea.
- **Jasandako indarkerien memoria** sartzeari museoetan, artxiboetan, oroitzapenezko egunetan eta espazio publikoetan.

5 / Osasun EREMUA



Osasun-arreta funtsezkoa da kalte fisikoa, sexuala, ugalketako eta emozionala erreparatzeko. Hala ere, desgaitasuna duten emakumeek oztopo ugari dituzte arreta eskuratzeko eta kalitatezko osasun-arreta lortzeko.

Osasun-arretak funtsezko lekua du erreparazio-prozesuetan; izan ere, indarkeria-egoera baten ondoren, erakundeen arteko harremanetarako lehen guneetako bat izaten da askotan, eta ondorengo kalteak detektatzeko, laguntzeko eta prebenitzeko gaitasun handiena duen eremuetako bat. Hala ere, osasun-arretak generoari, desgaitasunari eta giza eskubideei buruzko prestakuntza egokirik jasotzen ez duenean, ikusezintasunerako, bidegabeko medikalizaziorako edo berbikimizaziorako gune bihur daiteke.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, indarkeria matxista garaiz detektatzean eta modu integralean lantzean desgaitasuna txertatzen duten protokolo espezifikorik ez egoteak eta kontsultetan eta zerbitzuetan irisgarritasunik ez izateak asko mugatzen du osasun-sistemaren erreparazio-ahalmena. Horregatik, eremu horretako erreparaziorako, baliabide espezializatu eta profesional prestatuez gain, eskubideak urratzen dituzten eta kalte erantsia eragiten duten jardunbide zabarrak, diskriminatzaile edo kapazitisten berrikuspen kritikoa egin behar da.

Ikuspegi horretatik, erreparaziorako osasun-arretaren helburua izan behar da emakume bakoitzaren errealitatera egokitutako erantzun irisgarria, errespetuzkoa eta koordinatua bermatzea, eta haren autonomia, kontakizuna eta premia espezifikoak aitortu behar ditu, erreparazio integrala emateko ezinbesteko baldintza baita.

Osasun-erreparazioak honako hauek bermatu behar ditu:

- Desgaitasuna duten eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta ematen **unitate espezializatuak**, diziplina anitzeko taldeekin.
- Osasun-langileen **etengabeko prestakuntza** generoaren, desgaitasunaren eta giza eskubideen arloan.
- **Arreta ginekologiko, ugalketako arreta eta osasun mentaleko arreta egokitua**, joera kapazitistatik gabekoa.
- Indarkeria garaiz detektatzeko eta modu integralean jorratzeko **protokoloak** laguntza-maila guztietan.
- Eskubideak urratzen dituzten **jardunbide zabarrak**, diskriminatzaileak edo medikalizatzaileak **ezabatzea**.

2.7. ERREPARAZIORAKO ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRIAK

Erreparaziorako benetako esku-hartze interseksional batek ezin ditu indarkeria ahalbidetu zuten menderatze-eskema, kontrol-eskema eta ikusezintasun bihurtzeko eskema berberak errepikatu. Aitzitik, errespetuan, entzutean, duintzean eta emakume guztien eskubideak aktiboki leheneratzean oinarritutako laguntza-prozesu bat eraiki behar du. Horretarako, ezinbestekoa da **printzipio gidari** hauek oinarritzat hartzea:



EMAKUMEEN ZENTRALITATEA. Indarkeria-egoerak bizi izan dituzten emakumeak dira beren errekupeazio- eta erreparazio-prozesuen protagonistak. Ikuspegi horretatik, desgaitasuna duten emakumeak esku-hartzearen erdigunean jartzea ez da printzipio metodologiko bat soilik, ezinbesteko baldintza baizik, kontrolatzeko, ordezkatzeko edo isilarazteko beste modu batzuk saihesteko. Haien ahotsa, autonomia eta erabakitze gaitasuna benetan aitortuz bakarrik eraiki daitezke aurretik bizi izandako indarkeriak errepikatzen ez dituzten eta eskubideak benetan leheneratzen laguntzen duten erreparazio-prozesuak.

Horretarako, hau egin behar da:

- **Haien ahotsa**, denborak, erabakiak eta autonomia errespetatzea.
- Eragiten dieten neurrien zehaztapenean aktiboki **parte hartzen dutela bermatzea**.
- Haien jakintzak, erresistentziak eta agentzia-gaitasuna aintzatestea. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, **ingurune irisgarriak eta erabakiak hartzen laguntzeko sistemak** bermatu behar dira, behar den guztietan, eta komunikazio egokia uneoro.



BERBIKTIMIZAZIORIK EZ. Ez berbiktimizatzea erreparaziorako esku-hartze ororen funtsezko printzipioa da. Sistema instituzionala ez da indarkeria jasateko beste leku bat bihurtu behar indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeentzat. Horretarako, ezinbestekoa da desgaitasunaren, generoaren eta giza eskubideen arloko profesionalen etengabeko prestakuntza, bai eta esku-hartze bakoitzean pertsonarengan oinarritutako ikuspegi etiko eta errespetuzkoa hartzea ere.

Berbiktimizatzen ez duen esku-hartzeak kaltea eragiten duten jardunbideak saihestu behar ditu, hala nola epaiketa moralak, infantilizazioa, desgaitasuna duen emakumearen testigantzarekiko mesfidantza sistematikoa, kontakizun traumatikoak alferrik errepikaraztea, neurritz kanpoko administrazio-eskakizunak edo baliabideak eta laguntzak eskuratzeko oztopoak jartzea. Era berean, ikuspegi patologizatzaileak edo asistentzialistak desagerrarazi behar dira, emakumea esku-hartzearen objektutzat jotzen baitute, eta ez eskubideen subjektutzat.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, berbiktimizazioak forma espezifikoak hartzen ditu, haien sinesgarritasuna zalantzan jartzearekin, erabakiak hartzerakoan haien nahia ordeztearekin edo arreta- eta erreparazio-prozesuetan erabateko parte-hartzea eragozten duten arrazoizko egokitzapenik ez izatearekin lotutakoak. Hori dela eta, berbiktimizaziorik ez dela gertatzen bermatzeko, prozedurak, denborak eta dinamika instituzionalak modu kritikoan berrikusi behar dira, eta emakume bakoitzaren errealitatera eta beharretara egokitu behar dira.

Ikuspegi horretatik, erreparaziorako benetako esku-hartze batek gunee seguruak, irisgarriak eta koherenteak sortu behar ditu, non emakumeari entzun ahal izango zaion epaitua izan gabe, lagunduko ahal izango zaion ordezkaria izan gabe eta aitortua izango den berriro kaltetua izan gabe. Esku-hartzeak honako hauek saihestu behar ditu:

- **Epaiketa moralak**, infantilizazioa edo testigantzarekiko mesfidantza
- Adierazpen traumatikoak **alferrik errepikaraztea**.
- **Gehiegizko administrazio-eskakizunak** edo baliabideak eskuratzeko oztopoak.
- **Tratamendu** patologizatzaileak edo **asistentzialistak**.



ERRUDUNTZAT EZ JOTZEA. Indarkeriaren erantzukizuna indarkeria erabiltzen duenari dagokio beti, inoiz ez indarkeria jasaten duen emakumeari. Erreparaziorako esku-hartzeak printzipio hori izan behar du oinarritzat argi eta garbi, eta saihestu egin behar du indarkeria-egoera emakumeak onartu egin zuela, eragin zuela edo indarkeria-egoeratik ez zuela irteten jakin iradokitzen duen edozein kontakizun. Esku-hartzearen ardatza urrututako eskubideak leheneratzea eta jasandako kaltea aitortzea izan behar da, eta ez emakumearen bizitzaren eta erabakien kontrola, zaintza edo ebaluazio morala.

Indarkeria-egoerak bizi dituzten emakumeak erruduntzat jotzea sakon errotutako mekanismoa da, eta eragina izaten du erasotzailearengan nahiz ingurune sozial eta instituzionalean. Mekanismo horrek defentsa-funtzioa betetzen du: erantzukizuna biktimarengana mugiarazteak aukera ematen du indarkeriaren larritasuna minimizatzen, inplikazio kolektiboa saihesteko eta indarkeria iraunarazten duten gizarte- eta harreman-egiturak zalantzan jartzeko beharra saihesteko.

Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, erruduntzat jotzeko dinamika horiek indartu egiten dituzte diskurtso kapazitistek, indarkeria ustezko mendekotasunari, berezko zaurgarritasunari edo erabakiak hartzeko ezintasunari egozten baitiote. Kontakizun horiek faltsuak izateaz gain, kalte erantsia eragiten dute, emakumearen kontakizunari zilegitasuna kentzen diotelako eta kontrolatzeko, babesteko edo emakumearen nahia ordezkatzeko jardunbideak indartzen dituztelako.

Erreparazioaren ikuspegitik, ezinbestekoa da indarkeria erabiltzen duen pertsonak bere gain hartzea eragindako kaltearen gaineko erantzukizuna, eta erakundeek anbiguotasunik gabe aitortzea erantzukizun hori. Horrela bakarrik eraiki daitezke esku-hartzeak, emakumea erruaren zamatik askatzeko, bere duintasuna leheneratzeko eta justizian, aitortzan eta bere eskubideen errespetuan oinarritutako erreparazio-prozesuetan laguntzeko.

Beraz:

- **Saihestu** egin behar da emakumeak egoera "onartu" egin zuela, "eragin" zuela edo "ez zuela ateratzen jakin" iradokitzen duen edozein kontakizun.
- Esku-hartzearen ardatza **urratutako eskubideak leheneratzea** izan behar da, ez emakumearen bizitza edo erabakiak kontrolatzea.
- Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, ustezko "mendekotasunagatik" edo "berezko zaurgarritasunagatik" erantzule bihurtzen dituzten diskurtsoak suntsitu egin behar dira.



INTERSEKZIONALITATEA. Emakumeek ez dute indarkeria modu homogeneoan bizi. Indarkeria matxistaren esperientziak desberdinkeria-ardatz ugarik zeharkatzen dituzte, eta ardatz horiek elkartu egiten dira eta baldintzatu egiten dute indarkeria erabiltzeko modua, bai eta babes, laguntza eta erreparazioa eskuratzeko aukerak ere.

Intersekzionalitateak aukera ematen du ulertzeko hainbat faktorek (desgaitasuna, adina, jatorri etnikoa edo nazionala, klase soziala, orientazio sexuala, instituzionalizazioa edo bestelako bazterkeria-egoerak...) elkarren artean nola eragiten duten, indarkeriaren eta eskubideen urraketaren esperientzia bereziak sortuz. Ardatz horiek ez dute modu isolatuan jarduten; aitzitik, nahastu egiten dira eta elkar indartzen dute, eta kalte-, ikusezintasun- eta babesgabetasun-modu espezifikoak sortzen dituzte.

Ikuspegi horretatik,

- Erreparaziorako esku-hartzeak **testuinguru askotariko eta konplexuetara egokitu behar du**, eta saihestu egin behar ditu desgaitasuna duten emakumeen bizitza zeharkatzen duten egiturazko desberdinkeriak kontuan hartzen ez dituzten erantzun uniformeak.
- Horretarako, **baliabide espezifikoak, egokitutako laguntzak eta profesional gaituak** behar dira intersekzio horiek identifikatzeko eta horiei heltzeko, zapalkuntzak sinplifikatu eta hierarkizatu gabe.

Beraz, ikuspegi intersekzionala txertatzeak berekin dakar esplizituki aitortzea desgaitasuna, jatorri etnikoa edo nazionala, administrazio-egoera, adina, sexu-orientazioa, instituzionalizazio-egoera eta beste faktore garrantzitsu batzuk, esku hartzeko eta erreparatzeko prozesuaren funtsezko elementuak direla.

Izan ere, intersekzionalitatea ez da hautazko gehigarri bat, erantzun bidezkoak, eraginkorrak eta benetan erreparatzaileak bermatzeko ezinbesteko esparru bat baizik.



ERREPARAZIORAKO ZEHARKAKOTASUNA. Erreparazioa ez da hasten prozesu judizialaren amaieran, eta konpentsazio ekonomiko zehatz bat baino gehiago da. Zeharkako ikuspegi gisa ulertu behar da, emakumeak izango duen lehen harreman instituzionaletik hasiko da erreparazioa: harreraren, entzutean, hasierako balorazioan, baliabideetara bideratzean eta erabakiak hartzean arreta-prozesu osoan zehar.

- Erreparaziorako zeharkakotasunak esan nahi du esku-hartze bakoitzak, esku-hartzea zein eremutatik egiten den kontuan hartu gabe, eskubideak, duintasuna eta bizi-baldintzak **leheneratzeko helburua izan behar duela gidari**, eta saihestu egin behar dituela kalte gehiago eragin ditzaketen jardunbide zatikatuak edo kontraesankorrak. Ikuspegi horretatik, erreparazioa ez da prozesuaren fase isolatu bat, baizik eta jardun profesionalak eta erakundeen erantzunak etengabe bideratzen dituen ildo nagusi bat.
- Erreparazioa ez da ekitaldi puntual bat, baizik eta **prozesu iraunkor bat**, erakunde-kultura, prozedurak eta harreman profesionalak txertatu behar dituen, eta koherentzia, irisgarritasuna eta errespetua bermatu behar ditu jarduera guztietan.
- Ezaugarri horiek dituen esku-hartze batek, banakako zauriak sendatzen laguntzeaz gain, aukera ematen du indarkeria iraunarazten duten egituren **eraldaketan aurrera egiteko**, eta emakumeei —eta, bereziki, desgaitasuna duten emakumeei—, bueltatu egiten die eskubideen, autonomiaren eta erreparazioaren subjektu gisa duten leku legitimoa.

Ezaugarri horiek dituen esku-hartze batek, banakako zauriak sendatzeaz gain, aukera ematen du indarkeria iraunarazten duten egiturak eraldatzeko ere, eta emakumeei —eta, bereziki, desgaitasuna duten emakumeei—, bueltatu egiten die eskubideen, autonomiaren eta erreparazioaren subjektu gisa duten leku legitimoa.

2.8. DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ERREPARAZIOAK DAUZKAN BEREZITASUNAK

Indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten desgaitasuna duten emakumeek diskriminazio, bazterkeria eta eskubideen urraketa arloko egoera espezifikoak jasaten dituzte, eta baldintza horiek lehenetsunez hartu behar dira edozein erreparazio-prozesutan.

Kontua ez da soilik neurri orokor "egokituak" aplikatzea, baizik eta onartzea indarkeria espezifikoak, egiturazkoak eta normalizatuak daudela, eta askotan ez direla aintzat hartzen babes-sistemetan.

Desgaitasuna duten emakumeen erreparazioa ezin da eredu orokorraren egokitzapen partziala izan: estrategia espezifikoa izan behar da, ikuspegi interseksionala, parte-hartzailea eta justizia sozialekoa duena.

Ikuspegi horretatik, desberdinkeria horiek nola agertu eta errepikatzen diren sakon aztertu behar da, baita egungo erantzunen mugak ere, erreparazio-prozesu benetan eraldatzaileak bermatu ahal izateko.



INDARKERIA-MOTA UGARI. Desgaitasuna duten emakumeek indarkeria interseksionatua jasaten dute, matxismoa kapazitismoarekin eta beste diskriminazio mota batzuekin nahasten baita (adina, klasea, etnia, mendekotasun-egoera, instituzionalizazioa, etab.). Indarkeria mota hauek jasan ditzakete:

- Fisikoak, sexualak, psikologikoak, ekonomikoak, **behar dituen zainketak ez emateagatik** eta **instituzionalak**.
- **Bikotekideen, senitartekoen, arreta ematen dieten langileen edo erakundeen indarkeria.**
- **Sozialki normalizatuak edo minimizatuak**, bereziki zainketa-testuinguruetan gauzatzen direnean.
- Gainera, emakume askok ez dute indarkeriatzat hartzen bizi dutena, **erruduntzat jotzen, infantilizatzen edo beren esperientzia ikusezin bihurtzen duten sozializazio-prozesuen** ondorioz.



ESKUBIDEAK BALIATZEKO OZTOPOAK. Arreta-sistema, sarritan, ez dago prestatuta desgaitasuna duten emakumeek jasaten dituzten indarkeriak aintzat hartzeko, artatzeko eta behar bezala erreparatzeko:

- Babes, osasun, justizia edo etxebizitzaren arloko baliabideak eskuratzeko **oztopo fisikoak, komunikatiboak, kognitiboak eta jarrerazkoak**.
- **Protokolo egokiturik**, interpretetik, irakurketa errazeko materialik edo prestatutako pertsonalik ez izatea.
- Profesionalek lekukotzaren **sinesgarritasuna ukatzea** edo infantilizatzea.
- Genero-indarkeriari buruzko kanpainetan, diagnostiko edo politika publikoetan desgaitasuna duten emakume gutxi egotea.
- Horrek guztiak **desberdinkeria sortzen du justiziarako eta erreparaziorako sarbidean**.

→ **TUTORETZARAKO ETA NAHIA ORDEZKATZEKO ARRISKUA.** Haien autonomia sustatu beharrean, esku-hartze askok emakumeak babestu, kontrolatu edo haien ordeztu erabakitzeko joera dute.

- Prozesu judizialean, sanitarioetan edo sozialetan **aktiboki parte hartzea eragozten zaie.**
- "Babesa" lehenesten da, **sexu- eta ugalketa-eskubideen eta eskubide zibilen ginetik.**
- Erreparazioa beste batzuek "haien onerako" egiten duten gauza dela uste da, **beren ahots eta erabakien bidez** erakitzen den zerbait izan beharrean. Paradigma aldatu behar da, **gaitasun juridikoa eta erabakitzeko eskubidea aitortu behar zaie behar dituzten laguntzak emanda.**

→ **ERAKUNDEEK IKUSEZIN BIHURTzea.** Nazioarteko arau-esparruak gorabehera, hala nola Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa, desgaitasuna duten emakumeak ez daude diagnostiko, protokolo eta estatistika ofizialean. Ikusezin izate horrek bazterkeria iraunarazten du, eta indarkeria instituzionalaren modu bat da berez.

- Erreparazioak berekin ekarri behar du **omisio historiko hori publikoki aitortzea.**
- Premiazkoa da haien errealitatea **politika publikoetan, datu-sistemetan, lanbide-heziketan eta programen ebaluazioan txertatzea.**

→ **ERREPARAZIO ERALDATZAILE ETA INTERSEKZIONALAREN BEHARRA.** Erreparazioa eraginkorra izan dadin, honako hauek jaso behar ditu:

- Oztopo eta diskriminazio sistemikoak ezabatzen dituzten **egiturazko neurriak.**
- **Baliabide irisgarriak eta espezifikoak** sortzea, desgaitasuna duten emakumeen erakundeekin batera.
- Emakumea **eskubideen eta gizarte-eraldaketako subjektutzat**, ez laguntza-objektutzat jotzen duen esku-hartzea.
- Haien esperientziak **prebentzio eta arreta politikak, protokoloak eta sistemak bideratuko dituela** bermatzea.

Aipatutako berezitasunek agerian uzten dute desgaitasuna duten emakumeen erreparazioa berriaz eta sakon landu behar dela. Horregatik, hurrengo ataletan zehatz-mehatz garatzen dira **indarkeriaren inpaktua, eskubideak eskuratzeko oztopo eta zailtasun espezifikoak**, dauden baliabideak eta erantzunak, bai eta **erreparazio eraginkor, integral eta eraldatzailea lortzeko behar diren proposamenak** ere.



OZTOPOAK, INDARKERIA INSTITUZIONALA ETA BERBIKTIMIZATZEKO PROZESUAK

Desgaitasuna duten eta indarkeria matxistako egoerak bizi dituzten emakumeek askotan indarkeria instituzionalak ere jasaten dituzte, eta lehenago jasandako kalteari gehitu behar zaizkio. Indarkeria horiek, besteak beste, honako faktore hauen ondorio dira: baliabideen eskuragarritasunik eza, haien kontakizunarekiko mesfidantza sistematikoa, erabakiak hartzeko gaitasuna zalantzan jartzea eta prozedura administratibo eta judizialen zurruntasuna.

Jardunbide instituzional horiek berbiktimizazio-prozesuak sortzen dituzte, kaltea sakontzen dute eta nabarmen zailtzen dituzte indarkeriatik irteteko prozesuak eta benetako erreparazio eraginkorra lortzeko aukera. Babesa eskaini beharrean, eskubideak bermatu beharko lituzketen sistemek bazterkeriako, higadura emozionaleko eta deslegitimazioko dinamikak errepikatzen dituzte, eta emakumeak ahultasun eta babesgabetasun handiagoko egoeran kokatzen dituzte; horixe gertatzen da desgaitasuna duten emakumeekin.

Zeharka bada ere, oztopo horiek funtsezko hainbat eremutan agertzen dira, hala nola justizia-sisteman, gizarte-zerbitzuetan eta baliabide ekonomikoak eskuratzera-koan. Eremu judizialean, irisgarritasun-zailtasunek, laguntza egokirik ez izateak eta kontakizuna zalantzan jartzeak eragina dute eskubideak benetan baliatzerakoan. Gizarte-zerbitzuetan, dispositiboan zurruntasunak, ikuspegi asistentzialegiek eta koordinaziorik ezak benetako laguntza emateko aukerak mugatzen dituzte. Horrez gain, oztopo ekonomikoak eta desgaitasunari lotutako gainkostua daude, eta horrek zuzenean baldintzatzen ditu autonomiarako, babeserako eta indarkeriatik irteteko aukerak. Ikuspegi horretatik, oztopo horien inpaktua ezin da soilik modu indibidualean ulertu, baizik eta eskubideak aitortzean, babestean eta bermatzean huts egiten duten egitura instituzionalek eragindako eta iraunarazitako kaltetzat: kalte hori metatu eta kroniko bihurtzen da, eta sakon mugatzen ditu emakumeen bizi-aukerak, are gehiago desgaitasuna duten emakumeenak.



INDARKERIA MATXISTAREN ERAGINA DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEENGAN

Indarkeria matxistak desgaitasuna duten emakumeengan duen eragina ezin da modu indibidualean bakarrik ulertu, eta ezin dira emakumeen ondorio psikologikoak edo emozionalak bakarrik kontuan hartu. Jasandako kaltea autonomia mugatzen duen, estereotipo kapazitistak indartzen dituen eta parte hartzeko benetako aukerak sistematikoki murrizten dituen testuinguru sozial eta instituzional batean gertatzen da eta irauten du, eta zuzenean eragiten dio bizimodu independentea garatzeko eta bizi-proiektu propioa berreraikitzeke aukerari.

Indarkeriak, desgaitasuna duten emakumeen esperientzia pertsonala ez ezik, beren harremanak, baliabideetarako sarbidea, gizarte-egoera eta beren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna ere zeharkatzen ditu. Egiturazko oztopoek, laguntza egokirik ez izateak eta babes-sistemen erantzun eskasak edo desegokiak areagotu

egiten dute kalte hori, eta bazterkeria-prozesuak, isolamendu-prozesuak eta era-kundeekiko konfiantza-galera sortzen dituzte.

Horri gehitu behar zaizkio indarkeria ekonomikoaren inpaktua eta desgaitasunari lotutako gainkostu etengabea, zaurgarritasun- eta mendetasun-egoerak nabarmen larriagotzen baitituzte. Egiturazko prekarietateak, diru-sarrera propioak lortzeko zailtasunak, laguntza nahikoak edo baliabide ekonomiko egonkorak lortzeko zailtasunak indarkeriatik ateratzeko eta bizi-proiektu autonomo bat berreraikitzeke benetako aukerak baldintzatzen dituzte. Alderdi material horiei heldu gabe, edozein erreparazio-saiakera ez da osoa izango eta ez da nahikoa izango.

Metatutako inpaktu horrek modu erabakigarrian baldintzatzen ditu leheneratze- eta erreparazio-prozesuak, eta agerian uzten du erantzun integralen beharra, desgaitasuna duten emakumeengan indarkeriak dituen ondorio indibidualak ez ezik, indarkeria hori iraurarazten duten eta larriagotzen duten testuinguru-alderdiak ere kontuan hartuko dituen. Ingurune horiek eraldatu gabe, desgaitasuna duten emakumeek aukera gutxi izango dituzte bizi-proiektua benetan erreparatzeko eta berreraikitzeke.



DAUDEN BALIABIDEAK ETA ERANTZUNAK: ESKASIA, ESKURAEZINTASUNA ETA EGOKITZAPEN FALTA

Baliabide espezializatu eta eskuragarrien eskasia da desgaitasuna duten emakumeek bizi dituzten indarkeria matxistako egoerei erantzuteko muga nagusietako bat. Baliabide egokitu, malgu eta premia-aniztasuna errespetatzen duten gutxi egoteak, askotan, indarkeriazko testuinguruetan jarraitzea behartzen ditu, edo haien bizi-proiektua errespetatzen ez duten eta benetako autonomia-baldintzak bermatzen ez dituzten soluzio instituzionalak onartzera.

Erantzun horiek, babes eraginkorra eskaini beharrean, beste kalte batzuk sor ditzakete, desgaitasuna duten emakumeen eskubideen, nahien eta erabakien aurretik kudeaketa instituzionala lehenesten duten soluzioak inposatzen baitituzte. Kasu jakin batzuetan, aukera egokirik ez dutenez, behartutako instituzionalizazio-prozesuak edo bizimodu independentea, parte-hartze soziala eta bizi-proiektuaren berreraikuntza larriki mugatzen dituzten ibilbideak bizi izaten dituzte.

Baliabide irisgarri eta egokirik ez izateak, indarkeriatik ateratzea zailteaz gain, zuzenean arriskuan jartzen ditu benetako erreparazio-aukerak. Behar besteko laguntza, irisgarritasun unibertsala eta autonomiarekiko errespetua bermatzen dituen dispositiborik gabe, dauden erantzunak ez dira nahikoak indarkeria matxistako egoerak bizi dituzten desgaitasuna duten emakumeei arreta egokia eskaintzeko.



ERREPARAZIO ERAGINKORRERAKO PROPOSAMENAK: AUTONOMIA ETA BIZIMODU INDEPENDENTEA ERREPARAZIO-ARDATZ GISA

Indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten desgaitasuna duten emakumeen erreparazioak lotura zuzena du bizimodu independenteko proiektu bat eraikitzeke eta horri eusteko benetako aukerarekin. Erreparazioak ezin ditu barne hartu unean uneko esku-hartzeak edo larrialdiko erantzunak soilik; aitzitik, laguntza egokiak, baliabide eskuragarriak eta baldintza material nahikoak bermatu behar ditu, desgaitasuna duten emakumeek beren bizitzaren kontrola berreskuratzeko eta erabakiak askatasunez hartzeko aukera izan dezaten.

Autonomia eta bizimodu independentea izan behar dira edozein erreparazio-prozesuren ardatz nagusiak. Etxebizitza egokirik, laguntza pertsonalizaturik, baliabide ekonomiko egonkorrik eta ingurune irisgarririk gabe, erreparazioa ez da osoa izango, eta kaltea betikotzen duten mendetasun-, zaurgarritasun- edo instituzionalizazio-egoerak errepikatzeke arriskua dago.

Alde horretatik, erreparazioa ezin da izan desgaitasuna duten emakumeen ahalegin indibidualaren edo egokitzeko gaitasunaren kontua; aitzitik, sistemaren erantzukizun zuzena da. Sistema sozial, instituzional eta judizialek eginkizun aktiboa izan behar dute erreparazio-prozesuetan, eta koherentzia bermatu behar dute hartutako neurrien, etengabeko jarraipenaren eta jarduketan ebaluazioaren artean. Gainera, bermatu egin behar dute laguntzak desgaitasuna duen emakume bakoitzaren benetako beharretara egokitzen direla.

Eskubideen bermean, sistemen arteko koordinazioan eta desgaitasuna duten emakumeen autonomiarekiko eta bizi-proiektuekiko errespetuan oinarritutako konpromiso instituzional iraunkor batetik abiatuta bakarrik egin daiteke aurrera erreparazio-prozesu eraginkor, iraunkor eta eraldatzaileetarantz.

3

Gure ahotsak



Atal honek indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten desgaitasuna duten emakumeen ahotsak, esperientziak eta gogoetak kokatzen ditu erdigunean.



Kontua ez da soilik datuak edo testigantzak biltzea, baizik eta ahots horiek eza-gutza-iturri legitimo gisa aitortzea, ezinbestekoa baita indarkeriaren benetako irismena ulertzeko eta erreparazio eraginkorra lortzeko zer baldintza bete behar diren ulertzeko.

Jasotako ekarpenen helburua ez da irakurketa estatistiko adierazgarria eskaintzea, baizik eta eredu partekatuak, egiturazko oztopoak eta jardunbide instituzionalak ikusaraztea, indarkeriatik irteteko prozesuetan eta erreparazio-prozesuetan eragin zuzena baitute.

Ikuspegi horretatik, kontatutako esperientziek aukera ematen dute identifikatzeko arretaren hutsuneak, berbiktimizazio-egoerak eta premia espezifikoak; izan ere, premia horiek, sarritan, arau-esparruetatik eta esku hartzeko baliabideetatik kanpo geratzen dira.

Dokumentu honetan “Gure ahotsak” sartzeko arrazoia jarrera politiko eta etiko argia erakustea izan da: desgaitasuna duten emakumeak politika publikoen hartzaile gisa ez ezik, eskubideen eta jakintzaren subjektu aktibo gisa ere aitortzea, horien bizipenek indarkeria matxistaren eta erreparazioaren arloko erantzun instituzionalen diseinua, ezarpena eta ebaluazioa bideratu behar baitituzte.

Inkestak

2025eko maiatzaren 15etik uztailaren 11ra bitartean, **Erreparazioari buruzko Inkestari** erantzuteko epe bat ireki zen, desgaitasuna duten hiru lurralde historikoetako emakumeen premiak ezagutzeko eta gure hausnarketan sartu ahal izateko. Guztira 108 erantzun jaso ziren laginean.


Hona hemen emaitzak, galdera bakoitzaren arabera:

1. Ba al dakizu zer den "erreparazioa" indarkeria matxista jasan duen emakume batentzat?

Oro har, ezjakintasun handia dago erreparazio-eskubidea edo erreparazio-printzipioaren esanahiari buruz eta suposatzen duenari buruz.

Ezjakintasun hori ez da soilik informazio indibidualaren gabezia, baizik eta erreparazioa eskubide eraginkor eta aintzatesgarri gisa txertatu ez duen sistema baten isla da. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, gabezia hori larriagotu egiten da informaziorako irisgarritasunik ez dutelako, laguntza egokirik ez dutelako eta indarkeria matxistari buruzko diskurtso instituzionaletan beren errealitateak ikusezinak direlako. Erreparazioa ez da arretaren ohiko ibilbidearen parte, eta horrek zaildu egiten du emakumeek erreparazioa identifikatzea, erreklamatzea eta norberaren eskubidetzat baliatzea.


2. Indarkeria-egoeraren bat bizi izan al duzu emakume izateagatik?



Hau da, emakumeen % 67k erantzun zuen noizbait indarkeria-egoeraren bat jasan zuela. Fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, zainketak ez emateagatik. Horiek guztiak, edo horietako batzuk.


Datu horrek agerian uzten du indarkeria matxistak prebalentzia handia duela desgaitasuna duten emakumeen artean, eta egiaztatzen du ez direla egoera isolatuak, egiturazko errealitatea baizik. Adierazitako indarkeria-mota horiek askotarikoak dira, eta horrek indartu egiten du erreparazio-prozesu integralen beharra. Prozesu horiek ez dute kaltearen dimentsio bakar bat soilik kontuan hartu behar, baizik eta kaltearen ondorio pertsonalak, sozialak, ekonomikoak eta instituzionalak modu koordinatuan landu behar dituzte.

3. Egoera horrek zure desgaitasun fisikoari ere eragiten al dio?



Erantzunen aniztasunak agerian uzten du indarkeria matxistaren eta desgaitasunaren arteko harremana identifikatzeko eta izendatzeko dagoen zailtasuna. Batzuetan, indarkeria desgaitasunaren jatorri zuzena da; beste batzuetan, berriz, indarkeriak aurretiazko mugak larriagotzen ditu edo ondorio fisiko eta emozional berriak sortzen ditu. Emakume ugari erantzuten ez jakiteak agerian uzten du akonpainamendu-prozesuen beharra, indarkeriak osasunean, autonomian eta eguneroko bizitzan metatutako inpaktua ulertzen laguntzeko, bizi-ibilbide bakoitzera egokitutako erreparazioarako oinarri gisa.

4. Egoera horren ondoren, babesik edo laguntzarik jaso zenuen?




Ikusten dugunez, gehiengoak ez zuen laguntzarik lortu. Indarkeriaren osteko babes falta horrek agerian uzten du baliabideak eskuratzeko oztopo handiak daudela eta erakundeen erantzunak ez direla nahikoak. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, oztopo horiek areagotu egiten dira irisgarritasun faltagatik, arreta-zirkuituak ez ezagutzegatik eta sinetsiak ez izateko edo funtsezko laguntzak galtzeko beldurragatik. Laguntza egokirik ez izateak, indarkeriatik ateratzea zailtzeaz gain, kaltea areagotzen du eta benetako erreparazio-prozesuak hasteko aukerak mugatzen ditu.

5. Zer laguntza mota jaso zenuen?

Oro har, laguntza psikologikoa jasotzen da gehien, 47 erantzun, hain zuzen ere. Emaitzak ikusita, esan dezakegu indarkeria matxistako egoerak jasan ditugunean gizarte-zerbitzuetara jotzen dugula lehenik. Beraz, lanean jarraitu behar dugu sarrera-bide hori konfidentziala izan dadin, eta langile prestatuak eta desgaitasuna duten emakumeen errealitatea ezagutzen dutenak izan ditzan. Emaitzetan ikusi dugu 49 emakumek "beste batzuk" erantzun dutela. Beraz, zerbaitek ihes egin zigun, laguntzaren bat ez genuen kontuan hartu inkesta egiterakoan.

Laguntza psikologikoaren nagusitasunak agerian uzten du erakundeen erantzunak gehienbat alderdi emozionala hartzen duela kontuan, eta beste funtsezko behar batzuk bigarren mailan uzten dituela, hala nola autonomia ekonomikoa, etxebizitza eskuratzea, bizimodu independenterako laguntzak edo laguntza juridikoa. "Beste batzuk" aukerak erantzun asko izateak iradokitzen du, gainera, jasotako laguntzak ez datozela bat beti eskura dauden baliabide formalekin, eta horrek adierazten du arreta-sisteman gabeziak daudela eta erreparazio-ikuspegia zabaltzeko beharra dagoela.

6. Laguntza jaso bazenuen, ondo tratatua eta entzuna sentitu zinen?



Ikusten dugunez, lanean jarraitu behar dugu emaitzetan islatu dugun arreta, enpatia, entzute eta sentsibilitate falta horretan.

Emakumeak gaitu eta ahaldundu behar dira, geure burua biktima gisa aitortzeko, bai eta kalitatezko arreta eskuragarri eta gure beharretara egokitu izateko dugun eskubidea aldarrikatzen jakiteko ere, legean jasotzen den bezala. Horregatik, lege hori ezagutu behar dugu, hitza hartu eta geure ahotsa entzunarazi behar dugu. Horrela, babes falta hori exijitu eta salatu ahal izango dugu.

Balorazio hoberik ez lortzeak gabezia nabarmenak daudela erakusten du arretaren kalitatean. Entzutea, errespetua eta enpatia oinarritzko baldintzak dira erreparaziorako esku-hartze baterako. Emaitza horiek agerian uzten dute profesionalak prestakuntza espezifikoak jaso behar dutela, eta ikuspegia aldatu behar dela, desgaitasuna duten emakumeak solaskide balioudun eta beren prozesuaren protagonista izan daitezen.

7. Zure ustez, zer gauza dira garrantzitsuak erreparazio bat bidezkoa eta osoa dela sentitzeko?

Erantzunen arabera, batez ere aitortzarekin, sinesgarritasunarekin eta laguntzarekin lotzen da, eta ez bakarrik neurri materialekin. Aldi berean, enplegua erreparazio-elementu gisa aintzat ez hartzeak zerikusia izan dezake lan-bazterkeriak markatutako ibilbideekin, eta horrek indartu egiten du erreparazioaren barnean autonomia ekonomikoa lortzeko benetako baldintzak bermatuko dituzten politikak txertatzeko beharra.


8. Zure ustez, zer-nolako laguntza behar dute desgaitasun fisikoa duten emakumeek erreparazio-prozesu horietan?

Galdera honetan, oro har, hauek dira erantzunak:

- Gainerako emakumeen laguntza berdinak (ez dugu berezi sentitu nahi).
- Laguntza pertsonala, laguntza, akonpainamendua.
- Profesionalen laguntza. Profesionalek prestakuntza kualifikatua izatea.
- Sinesgarritasuna, entzutea, errespetua, laguntza, orientazioa, epaituak ez izatea.
- Irisgarritasuna lekuetan eta komunikazioan.


Las mujeres reclaman igualdad en el acceso a los derechos, pero con apoyos ajustados a sus necesidades. Esta demanda cuestiona los enfoques asistencialistas y subraya la importancia de intervenciones centradas en la persona, accesibles y respetuosas, que no reproduzcan estereotipos ni prácticas paternalistas.

9. Zure ustez, gaur egungo zerbitzuek kontuan hartzen al dituzte desgaitasun fisikoa duten emakumeen beharrak?




Gehienek uste dute zerbitzuek ez dituztela beren beharrak kontuan hartzen, eta horrek agerian uzten du arau-esparruaren eta jardunbide errealearen arteko aldea. Egokitzapen falta horrek babesa eta erreparazioa eskuratzeko aukera mugatzen du, eta agerian uzten du zerbitzuak berrikusi behar direla irisgarritasunaren, desgaitasunaren eta eskubideen ikuspegitik.

10. Egon zaren tokiak (osasan-zentroa, gizarte-zerbitzuak, epaitegiak, etab.) irisgarriak ziren eta zure beharretara egokituta zeuden?




Oro har, uste dute zerbitzuek irisgarritasun-gabeziak dituztela. Gehiengoak "batzuetan" erantzuteak adierazten du irisgarritasuna partziala dela edo ez dela nahikoa oraindik. Irisgarritasun fisikorik, komunikatiborik eta prozedurazkorik eza egiturazko oztopo bat da, eskubideak benetan egikaritzea eragozten duena, eta erreparazio-prozesuak zailtzen dituen indarkeria instituzional bat bihurtzen da.

11. Langileek ba al zekiten nola tratatu desgaitasun fisikoa duen emakume bat?



Hemen ere, oro har, uste dute haiekiko tratuak, desgaitasuna duten emakumeak diren aldetik, gabeziak dituela. "Ez dakite arreta nola eman". Eraitza horiek langileen prestakuntzan eta sentibilizazioan gabeziak daudela erakusten dute. Arreta desegokiak, infantilizazioak edo behar espezifikoak ez ulertzeak mesfidantza eta berbikimizazioa sortzen dute, eta emakumeak baliabideetatik urruntzen dituzte eta edozein erreparazio-prozesu zailtzen dute.

12. Errespetatua eta duintasunez tratatua sentitu zinen?



Errespetua eta duintasuna ez daude guztiz bermatuta. Anbibalentzia horrek agerian uzten du esku-haritzearen harreman-kalitatea erreparazioaren funtsezko osagaia dela, eta eremu horretako edozein urraketek kalte eta babesgabetasun instituzionala eragiten dituela.


13. Zer aldatu edo hobetuko zenuke desgaitasun fisikoa duten eta indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako laguntza- eta erreparazio-zerbitzuetan?

Hona hemen proposamenen laburpena:

- Hitzaldiak
- Arretarako prestakuntza
- Aurreiritziak ezabatzea
- Komunikazio irisgarria eta egokitua
- Irisgarritasun fisikoa

Egindako proposamenek argi eta garbi adierazten dute zerbitzuak eraldatzeko beharra, eskubideen, irisgarritasunaren eta erakundeen erantzunkidetasunaren logikatik abiatuta. Prestakuntza hobetzea, aurreiritziak ezabatzea eta irisgarritasuna bermatzea ez dira neurri osagarriak, erreparazioa posible eta eraginkorra izan dadin ezinbesteko baldintzak baizik.

Topaketak



Galde-sortan jasotako gaiak taldean lantzeko asmoz, **Lurralde Topaketak** egin ziren.

Gune horiek topaketarako eta elkarrizketarako gune gisa diseinatu ziren, eta bertan esperientziak, beharrak eta jakintzak partekatu ziren ikuspegi kolektibo batetik. Helburu nagusia zen indarkeria matxistako prozesuak igaro dituzten eta desgaitasuna duten emakumeen ahotsak eta bizipenak balioestea, eta haien ekarpenek erreparazio-estrategia osoagoak, sentikorragoak eta eraldatzaileagoak eraikitzeko duten garrantzia aitortzea. Eta, horrela, lagungarriak izango dira parte hartu zuten errealitatera egokitutako erreparazio-prozesu integralak bermatzea helburu duten etorkizuneko ekintzetan.

Jarraian, Gure ahotsak multzoetan aurkezten dira, hobeto ulertzeko.

I. MULTZOA – ERREPARAZIOAREN KONTZEPTUAK ETA ZENTZUAK

Emakumeen ustez, erreparazioa prozesu zabala da, etengabea, eta ez-lineala, eskubideak aitortzeari, sinesgarritasunari eta leheneratzeari lotua, eta ez da ekintza puntual edo konpentsazio ekonomiko soilak. Aintzatespena, justizia, sinesgarritasuna eta benetako baldintzak eskatzen ditu, emakumeek beren bizitzak berreraiki ahal izan ditzaten.

Desgaitasuna duten emakumeentzat, erreparatzeak berekin dakar ahotsa eta duintasuna berreskuratzea historikoki beren kontakizuna zalantzan jarri den testuinguruetan.

Lehen arretatik hasten da, eta koherentzia instituzionala eskatzen du beste kalte batzuk saihesteko. Beste kalte hori ez dator beti jatorrizko kaltea eragin zuenaren aldetik, ingurunetik, erakundeetatik eta gizartetik baizik.

Parte-hartzaileek adierazi zuten erreparatzeak esan nahi duela indarkeria berriro ez errepikatzea, beldurrik eta errurik gabe bizi ahal izatea, eta haien testigantzan sinestea, behin eta berriz azaldu behar izan gabe.

Oro har, ez gara jabetzen erreparazioa eskubide indibiduala zein kolektiboa dela, indarkeria matxistak emakumearen laguntza-sareari ere eragiten baitio.

Harreraren, enpatiaren eta arreta egokia ematearen garrantzia azpimarratzen da, baita hitza epai-tuak izatearen beldurrik gabe hartzeko moduko espazio seguruak sortzearen garrantzia ere. Gainera, azpimarratu zen erreparazioak desgaitasuna duten emakumeen behar espezifikoak jaso behar dituela, benetan integrala izateko. Praktikan, emakumeek ikusten dute erreparazioa ia ez dela existitzen, eta lanean jarraitu behar dela indarkeriaren zikloa hausteko eta hurrengo belaunaldietan ez errepikatzeko.

Indarkeria-esperientziei dagokienez, emakumeen % 67k adierazi du indarkeria bizi izan duela. Datu horrek ez du adierazten areagotu egin denik, baizik eta gaur egun gaitasun handiagoa dagoela hura identifikatzeko eta izendatzeko, iraganean ez bezala, orduan indarkeria ezkutatu edo normalizatu egiten baitzuten gizartearen eta familiaren presioek.

Azkenik, adierazi da zuzeneko lotura dagoela desgaitasun fisikoaren eta indarkeria matxistaren artean; izan ere, kasu batzuetan, desgaitasuna indarkeriaren beraren ondorio da, eta horrek muga berriak sor ditzake, lehendik daudenak larriagotu, eta lotutako patologiak eragin, emakumeen zaurgarritasuna are gehiago areagotuz.



"Erreparatzea da berriro ez gertatzea"

"Sinets diezadatela mila aldiz azaldu beharrik gabe"

"Erreparatzea beldurrik eta errurik gabe bizi ahal izatea da"

II. MULTZOA – DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ESPEZIFIKOAK ETA LARRIAGOTUAK

Multzo honetan ikusten denez, desgaitasuna duten emakumeek indarkeria-mota larriagoak jasaten dituzte, bai generoagatik, bai desgaitasun-egoeragatik; horrek areagotu egiten ditu isiluneak, beldurra eta babesia eta baliabideak eskuratzeko oztopoak.

Aipatutako indarkeriek erakusten dute matxismoa eta kapazitismoa gurutzatu egiten direla, eta justizia, baliabideak eta babesia eskuratzeko oztopo gehigarriak sortzen dituztela. Erakundeenganako mesfidantza, infantilizazioa eta irisgarritasunik eza indarkeria erantsiak dira, eta kaltea areagotu eta erreparazioa zailtzen dute.

Desgaitasuna duten emakume gehienek ez dute babesik jasaten indarkeriaren ondoren, beldurragatik, lotsagatik, ez dakitelako zeintzuk diren egin beharreko urratsak edo bizitako indarkeria onartzeko zailtasunagatik. Erasotzailea kanporatzen dutenean ere, indarkeriak seme-alaben instrumentalizazioaren bidez jarraitzen du, eta erakundeen laguntza-sistema berandu iristen da, erabaki informatuak hartzeko behar den orientazio profesionala eskaini gabe. Laguntza mota ohikoena psikologikoa da, baina muturreko egoeretan bakarrik ematen da, arreta-sistema zurruna baita, eta profesional bakoitzak bere protokoloaren arabera bakarrik jarduten baitu. Horrek koordinazio falta eragiten du, eta emakumea prozesuaren erdigunetik baztertzen du.

Jasotako tratua pertzepzioak adierazten du premiazkoa dela indarkeria matxistan espezializatutako langileak izatea. Desgaitasunik ez duten emakumeak hobeto entzuten eta artatzen dituzte; desgaitasuna duten emakumeek, berriz, egoera haiek jasaten dituzte: aurreiritziak, infantilizazioa, osasun- edo gizarte-zerbitzuetara bideratze desegokiak, sinesgarritasunari buruzko zalantzak eta profesionalek laguntzailearengana jotzea haiei galdetu beharrean. Indarkeria instituzional, sanitario, sozial eta ekonomikoen barruan sartzen da hori, eta prozesu judizialean berbiktimizatzea eta beste emakume batzuei baino froga, txosten eta azalpen gehiago eskatzea ere bai. Gainera, irisgarritasunik ezak (fisikoa ez ezik, komunikaziozkoa, kognitiboa, jarrerazkoa eta prozedurazkoa ere bai) babesia eskuratzeko aukera mugatzen du, eta laguntza eskatzeak beste indarkeria-mota batzuetara edo erakundeetan sinesgarritasuna galtzera eraman ditzake.

Erreparazio-eskaerei dagokienez, azpimarratzekoa da enpleguak duen garrantzia, funtsezko tresna baita autonomia eta autoestimua berreskuratzeko, bai eta diru-sarrerak sortzeko ere, bizi-proiektu pertsonal eta iraunkorra gara dezaten. Hala ere, salatzen dutenez, desgaitasuna duten emakumeak enplegu babestuetara bideratzeko joera dago, baina enplegu babestuak ez ditu haien premiak betetzen. Gainera, enpresa batzuek hobari ekonomikoa lortzeko soilik kontratatzen dituztela ere salatzen da.

Halaber, azpimarratzen da erreparazioa emakumeen testigantzan sinestea dela, bereziki laguntza handiagoa behar dutenena, "errukarritzat" hartzen baitira eta bizi duten indarkeria ikusezin bihurtzen baita. Erreparazio bidezko eta osoa emateko, ezinbestekoa da inguruneak eta babes-sistemak haien hitza aintzat hartzea, erabakitzeko gaitasuna errespetatzea eta baliabide irisgarriak eta aurreiritzirik gabekoak bermatzea.



"Joaten zaren edozein lekutan, desgaitasunak baztertua sentiarazten zaitu"

"Desgaitasuna baduzu, osasun-arlorra edo gizarte-zerbitzuetara bideratzen zaituzte"

"Beste emakumeei ez zaie hainbeste frogatzea eskatzen"

"Profesional batzuek ez dakite nola hitz egin eta infantilizatu egiten gaituzte"

"Ez dago irisgarritasunik, ez zerbitzuetan, ez begiradan"

"Negozio hutsa gara"

"Enpleguak neure burua beste modu batean ikusteko eta baloratzeko aukera eman zidan"

III. MULTZOA – ERREPARAZIORAKO PROZESUAK, LAGUNTZAK ETA BALDINTZAK

Multzo honetan, desgaitasuna duten emakumeei benetako erreparazio-prozesu eraginkorrak bermatzeko laguntza eta konpainia-zerbitzu egokiak izatearen garrantzia nabarmentzen da. Erreparazioak laguntza etengabeak, irisgarriak eta aurreiritzirik gabekoak behar ditu. Ezin du arreta psikologikoa soilik eskaini; aitzitik, baldintza material nahikoak eta konpainia-zerbitzu egonkorra izan behar ditu, eta emakume bakoitzaren denbora eta erabakiak errespetatu behar ditu, bizi-proiektu autonomo bat berreraikitze oinarria baita.

Epaiketa mota oro (hitzezkoa edo begiraden bidezkoa) saihesteko beharra azpimarratzen da, eta nabarmentzen da emakume askoren ustez epaiketa isila are kaltegarriagoa izan daitekeela.

Laguntza enpatikoa, errespetuzkoa eta estigmatik gabea eskatzen da, biktima erruduntzat joko ez duen eta zalantzan jarriko ez duen inguruneetan. Erreparazioak gune seguruak behar ditu, emakumeek beldurrik gabe hitz egin ahal izateko, indarkeria matxistaren eta desgaitasunaren arloko presakuntza espezifikoak duten profesionalekin, entzute etikoa, espezializatu eta gizatiarra eskaintzeko gai direnekin.

Zerbitzuen egokitzapenari dagokionez, emakume bakoitzarengan eta haren ezaugarrietan eta beharretan oinarritutako tratua behar dela azpimarratu da, eta ez emakume horren desgaitasunean oinarritutakoa, egoera bakoitzaren arabera egokitzapen indibidualizatuak edukiko dituzten zerbitzuak. Desgaitasuna duten emakume guztientzako ikuspegi bakarraren ideia baztertzen da, eta gogorarazi da desgaitasun fisikoa dutenen premiak berariaz eta modu bereizian aitortu behar direla.

Agerian geratzen da, gainera, benetako irisgarritasunik eza: garraio egokiturik gabeko ertzain-etxeak, lehen arretako irisgarritasunik gabeko zerbitzu psikologikoak eta salatzerak bultzatzen duen mezu

publikoaren eta eskubide hori gauzatzea zailtzen duten oztopo fisikoen eta mugikortasun-oztopoen errealitatearen arteko kontraesana.

Erreparazioa posible izan dadin, laguntza komunitarioak, irisgarritasun unibertsala eta banakako prozesuak errespetatuko dituzten denbora gizatiarragoak behar dira, emakumeei presiorik egin gabe azkar indarberritzeko eta etengabe indartsuak izatera behartu gabe.

Sare formalak eta informalak (elkartek, lagunak, emakume-taldeak) funtsezkotzat jotzen dira berre-raikuntza emozionalean eta sozialean. Gainera, aitortzen da erreparazioa ez dela soilik emozionala: neurri materialak ere badakartza, hala nola diru-sarrera nahikoak, etxebizitza irisgarria, laguntza egokiak eta baliabide egokituak, baita neurri sinbolikoak ere, hala nola kaltea aitortzea, barkamena eskatzea eta jardunbide kaltegarriei amaiera emango dieten aldaketa instituzionalak.

Azken batean, erreparazioak epaitu gabe laguntzea, benetako irisgarritasuna bermatzea eta emakumeei bizitza duintasunez berreraikitze aukera emango dieten baldintza material, sozial eta sinbolikoak eraikitzea esan nahi du.



"Gune seguruak behar ditugu, bizirik ateratzeagatik epaitzen ez gaituztenak"

"Ez diezagutela eskatu indartsuak izatea denbora guztian"

"Erreparazioa ekonomikoa ere bada, ez emozionala bakarrik"

"Begiradaren bidez epaitzen zaituzte, eta batzuetan hitzen bidez epaitzea baino okerragoa da"

IV. MULTZOA – HOBETZEKO, ERANTZUNKIDETASUN SOZIALERAKO ETA ERALDAKETARAKO PROPOSAMENAK

Multzo honetan egiturazko aldaketak eta aldaketa instituzionalak planteatzen dira, sistema bi-dezkoagoak, irisgarriak eta erreparazioa eskainiko dutenak lortzeko indarkeria matxista bizi duten desgaitasuna duten emakumeentzat.

Proposamenek erakundearen erantzunkidetasunaren eskaera argia adierazten dute. Erreparazioa ezin da emakumeen erresilientzia indibidualean oinarritu; aitzitik, prestakuntza espezializatua, irisgarritasun unibertsala, sistemen arteko koordinazioa izan behar ditu, eta desgaitasuna duten emakumeek politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan parte-hartze aktiboa izan behar dute.

Premiazkoa da indarkeria matxistari eta desgaitasunari buruzko prestakuntza espezifikoa, nahi-taezkoa eta etengabea txertatzea inplikaturako eremu guztietan (gizarte-zerbitzuak, epaileak,

osasuna, hezkuntza, polizia eta larrialdiak), esku-hartze egokiak eta aurreiritzirik gabekoak bermatzeko.

Era berean, azpimarratzen da baliabide guztietan irisgarritasun unibertsala bermatu behar dela, fisikoa ez ezik, baita komunikatiboa, kognitiboa eta jarrerazkoa ere, emakume bakar bat ere behar dituen zerbitzuetatik kanpo gera ez dadin. Horren harira, justizia erreparatzaile bat behar da, kaltea aitortuko duena, emakumeen hitzari sinesgarritasun osoa emango diona eta berriro ez gertatzeko neurri eraginkorrak ziurtatuko dituena.

Proposatzen da, halaber, berbiktimizaziorik gabeko protokoloak txertatzea, kontakizuna alferrik errepikatzea murrizteko, zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko eta emakume bakoitzaren denborak eta mugak errespetatzeko.

Parte-hartzaileek adierazi zuten "bermeak" nahi dituztela, "ez mesedeak", eta erreparatzeak duintasuna itzultzea ere esan nahi duela.

Akonpainamenduak erdigunean jarri behar ditu emakumeak, eta bermatu behar du beraiek hartuko dituztela haien prozesuari buruzko erabakiak. Haien denborak errespetatzeak ez du esan nahi gizartea geldirik geratu behar denik: babesa eman behar da, ohartarazi eta lagundu, baita emakumeak oraindik indarkeria identifikatzen ez duenean edo berehala salatzerik ez duenean ere. Laguntza horrek denboran iraun behar du, eta bizi-egoeren aniztasunera egokitu behar da, bereziki ama direnean; izan ere, amatasunak beste beldur batzuk sortzen ditu, hala nola zaintza galtzea, seme-alaben babesa eta harremanetik ateratzeko baliabiderik eza. Horregatik, akonpainamenduak malgua eta egonkorra izan behar du, denborak edo bide bakar bat inposatu gabe.

Azkenik, erreparazioa ezin dela soilik emakumeena izan azpimarratu dute: eraldaketa sozial sakona eta erantzunkidea eskatzen du. Indarkeria matxista arazo kolektiboa da, ez indibiduala, eta erakundeen, herritarren eta komunitateen salaketa, babesa eta konpromiso aktiboa eskatzen ditu. Komunitate-mailan erreparazioak esan nahi du indarkeria onartuko ez den inguruneak eta babesa eta zaintza partekatzen diren inguruneak sortzea.

Desgaitasuna duten emakumeei arreta emateko langileen prestakuntzan nolabaiteko hobekuntza dagoela onartzen bada ere, oraindik erronka garrantzitsuak daude: oraindik ere haien testigantzarekiko erabateko sinesgarritasuna falta da, eta tratu benetan espezializatua eta haien errealitatearen araberakoa eskaini behar zaie.



"Bermeak nahi ditugu, ez mesedeak"

"Erreparatzea duintasuna itzultzea ere bada. Batez ere, akonpainamendua eta denborak "

Bestalde, **Lurraldearteko Topaketak** haien ahotsak, eskaerak, salaketak, istorioak, nahiak eta itxaropenak erdigunean jartzeko gune gisa balio izan zuen.

Elkarrekin hazteko bideari ekiteko eta bakoitzaren esperientziari buruzko ekarpena egiteko, ibilbide bakoitza kontuan hartuta. Jarraian, Gure ahotsak multzoetan aurkezten dira, hobeto ulertzeko.

I. MULTZOA – ERREPARAZIOAREN KONTZEPTUAK ETA ZENTZUAK

Tailerrean, erreparazioa lehen kontaktutik hasten den prozesu sakon gisa azalatu zen. Ez da izapide bat, duintasuna, zentzua eta eskubideak leheneratzea, aitortza eta akonpainamendua behar dituen berreraikuntza bat baizik.

Emakumeek adierazi zuten erreparatzeak ikusiak, entzunak, errespetatuak eta sinetsiak izatea esan nahi duela. Indarkeriak —eta askotan erakundeek— kendu duena itzultzea dakar: ahotsa, autonomia, sinesgarritasuna, espazioak, osasuna eta aukerak.

Erreparazioa ez da indibiduala bakarrik, kolektiboa ere bada, kalteak seme-alabei eta inguruneari eragiten baitie. Eta, existitzeko, erreparazioak eskatzen du sistemak indarkeria guztiak onartzea, baita ikusezinenak ere.



"Erreparazioa ez zaio emakumeari bakarrik eskaini behar, baita haren inguruneari eta indarkeriak kaltetutako guztiari ere. Erreparazio kolektiboa"

"Erreparazioa lehen arretarekin hasten da"

"Erreparazioaren printzipioa biktima ororen eskubidea da"

"Gehiago landu behar dugu desgaitasuna duten emakumeok bizi ditugun indarkerien aitortza"

"Erakundeek zigortzen gaituzte gehien, eta gainera, ez digute erreparaziorik eskaintzen"

"Jasandako indarkeriek utzitako ondorioak onartzearen garrantzia"

"Non daude lesbianek bizi dituzten indarkeriak?"

"Emakumea, desgaitasuna eta shock egoera elkartzen badituzu, fidagarria ez den biktima batekin egingo duzu topo"

"Erreparazioa: indarberritu eta leheneratu: nire ahotsa, nire autoestimua, nire lekua, nire familia, nire lana, nire bizitza, nire eskubideak, nire duintasuna"

"Egun apurtuta nago, indarrik gabe, galduta. Jostailu hautsiak gara"

II. MULTZOA – DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ESPEZIFIKOAK ETA LARRIAGOTUAK

Desgaitasuna duten emakumeek indarkeria ohikoagoak eta konplexuagoak jasaten dituzte, kaltea biderkatzen duten oztopoek zeharkatutakoak: irisgarritasunik eza, infantilizazioa, sinesgaiztasuna, lan-diskriminazioa, isolamendua eta indarkeria instituzionala.

Indarkeria ez da gertakari isolatu bat, kalean, garraioan, aisialdian, baliabideetan eta erakundeen barruan jarduten duen sistema bat baizik.

Norberari gertatzen zaizkion gauzak ezin kontatzeak eragiten duen behartutako isiltasunaren indarkeriari buruz hitz egin genuen. Baita preskribatutako indarkeria, duela urte asko gertatutakoa eta oraindik ere kaltea eragiten duena erreparatzeko beharrari buruz ere.

Sexualitatean ere egiturazko indarkeria gertatzen da: desgaitasuna duten emakumeak sexualitaterik gabeko pertsonatzat hartzen dira, eta horrek indarkeria ugari ikusezin bihurtzen ditu eta emakumeak babesik gabe uzten ditu. Eta sexualitatea duten pertsonatzat hartzen direnean, esparru heterosexualaren, normatiboaren eta helduen ikuspegitik soilik irakurri ohi da, eta beste bizipen afektibo-sexual batzuk kanpoan uzten ditu.

Ikuspegi baztertzailere horrek erabat ikusezin bihurtzen ditu harreman lesbiko, bisexual edo queer-etan gertatzen diren indarkeriak, eta zaildu egiten du esperientzia horiek babes-sistemek aitortzea, izendatzea eta artatzea.



Indarkeria instituzionala

"Salaketa egiterakoan esaten zidaten: "zure kabuz moldatzeko gai zara" (emakumea "bakarrik moldatu", oinarrizko jarduerak laguntzarik gabe egin ditzakeela edo laguntzarik gabe molda daitekeela ulertuta) "

"Aurpegiratu zidaten ni egoera hori eragiten ari ote nintzen "

"Salaketa jartzera joan nintzen, eta poliziak esaten zidan ez zuela zentzurik. "

"Hitzordua eskatu behar izan nuen, larrialdia izan arren "

"Emakumea, desgaitasuna eta shock egoera elkartzen badituzu, fidagarria ez den biktima batekin egingo duzu topo "

Sexualitate ukatua eta aniztasun afektiboa

"Sexu bereko pertsonen arteko indarkerien ikusezintasuna"

"Non daude lesbianek bizi dituzten indarkeriak?"

"Desgaitasuna duten emakumeei ez zaigu gure sexualitatea aitortzen"

"Desgaitasuna duten emakume migratzaileek oztopo erantsiak bizi dituzte"

Indarkeria soziala eta ekonomikoa

"Indarkeria ez da kolpea bakarrik, nola begiratzen diguten eta nola tratatzen gaituzten ere bada"

"Ikusten ez bagaituzte edo gu bertan ez bagaude, ez dira lekuak egokitzen"

"Indarkeria autobusa hartzera noala arrapala jaisten ez denean gertatzen dena da"

"Ez dugu lan jakin batzuk egiteko aukerarik, desgaitasuna dugulako"

"Eskaintzen diguten enplegua hain da prekariora, ezen DSBEarekin parekatzen baita"

"Ez dizute enplegu arruntik eskaintzen, baina ezta laguntza ekonomikorik ere"

"Indarkeriaren ondoriozko fibromialgiari buruz ez da hitz egiten"

"Emozionalki eragiten digunak fisikoki suntsitzen gaitu"

"Indarkeria soziala jasaten dugu, ez gaituztelako aintzat hartzen: ez bakarrik desgaitasuna izateagatik, baizik eta emakumeak izateagatik"

III. MULTZOA – ERREPARAZIORAKO PROZESUAK, LAGUNTZAK ETA BALDINTZAK

Erreparazioak denboran iraun behar du, eta lehenengo arretatik hasi. Sinesgarritasuna, laguntza, irisgarritasuna, laguntza emozionala, ondorioak aitortzea eta kalte instituzionalik ekarriko ez duen esku-hartzea eskatzen ditu.

Emakumeek adierazi zuten erreparazioak prozesu etengabeak, malguak eta emakumeengan oinarrituak eskatzen dituela, ez bakarrik baliabide puntualak. Eta, batez ere, erakundeek eragindako kaltearen erantzukizuna beren gain hartzea eskatzen du, uste baitute erakundeek ez dutela erreparatzen, baizik eta berbiktimizatu egiten dutela.

Laguntza egoki eta iraunkorrik ez izateak higadura emozional sakona eragiten du.

Ziurgabetasunak, babesgabetasunak, laguntzarik ezak eta etengabe justifikatzeko beharrak etengabeko sufrimendu psikikoa eragiten dute, eta horrek antsietatea, beldurra, akidura eta osasun mentala eta emozionala galtzea dakar.

Kalte hori ez da indibiduala edo patologikoa, baizik eta bizitako indarkeriaren eta erantzun erreparatzailearik ez izatearen ondorio zuzena.



"Erreparazioa lehen arretarekin hasten da"

"Sistemak lagundu egin behar digu erreparazio-prozesuan"

"Jasandako indarkeriek utzitako ondorioak onartzearen garrantzia"

"Erakundeek zigortzen gaituzte gehien, eta gainera, ez digute erreparaziorik eskaintzen"

"Emakumeari ez ezik, bere inguruari ere eskaini behar zaio erreparazioa"

"Erreparazioaren printzipioa biktima ooren eskubidea da"

IV. MULTZOA – HOBETZEKO, ERANTZUNKIDETASUN SOZIALERAKO ETA ERALDAKETARAKO PROPOSAMENAK

Proposamenak ez dira gomendioak: eskubide-eskakizunak dira. Oraindik ere desgaitasunak dituzten emakumeak ikusi gabe, entzun gabe eta behar bezala lagundu gabe jarraitzen duen sistema eraldatu nahi dute proposamen guztiek.



Jasotako ekarpenek agerian uzten dute desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria matxista larriagotu egiten dutela egiturazko oztopoek eta jardunbide instituzionalek, berbiktimizatzea eta kaltea kronifikatzea eragiten baitute.

Laburbilduz, erreparaziorako beharrezkoa da irisgarritasuna, laguntza iraunkorra, baldintza material nahikoak eta ikuspegiaren aldaketa sakona, emakumeak eskubideen, erabakien eta jakintzaren subjektu aktibo gisa kokatzeko. Egiturazko eraldaketa hori gabe, ez dago erreparaziorik, baizik eta babestu behar gaituen sistemetatik bertatik kaltea etengabe errepikatuko da.

4

Ondorioak

Erreparazioa lehen arretatik hasten da, eta entzuteko, sinesteko, laguntzeko eta ondorioak aitortzeko gai den sistema bat eskatzen du. Ezin da erreparazioaz hitz egin erakundeek kaltea eragiten badute edo esku-hartzea desgaitasuna duten emakumeen errealitatera egokituta ez badago.



Gertatzen zaiguna aitortzea hartu behar dugu oinarritzat, agerian jartzeaz gain. Eta ez bakarrik emakumeak kontuan hartuta, baita sentsibilizazio-, prebentzio-, arreta- eta erreparazio-sistema guztiak ere.

ERA ASKOTAKO KALTEA AITORTZEA

Indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten desgaitasuna duten emakumeek ez dute kalte bakarra jasaten, baizik eta beren bizitzaren hainbat alderdi zeharkatzen dituzten era askotako kalteak, metatuak eta elkarri lotuak. Jasandako kaltea ez da soilik pertsonala edo psikologikoa, eremu sozialean, ekonomikoan eta instituzionalean ere eragiten du, eta sakonki baldintzatzen ditu emakumeen bizi-ibilbideak, aukerak eta eskubideak benetan eskuratzea.

Era askotako kalte hori aitortzea ezinbestekoa da desgaitasuna duten emakumeek bizi izandako egoeren konplexutasuna ulertzeko eta indarkeriaren inpaktu osoari heltzen ez dioten erantzun partzialak edo sinplifikatuak saihesteko. Aitorpen hori gabe, esku hartzeko prozesuek eta erreparazio-prozesuek beste kalte eta bazterkeria mota batzuk sortzeko arriskua dute.

EREDUA ALDATZEKO BEHARRA

Azterketa honen ondorioek agerian uzten dute ez dela nahikoa dauden prozedurak hobetzea edo egoitzea. Logika asistentziala eta babes hutsa kontuan hartzen duen logika gainditzeko eredia behar da, eskubideetan, autonomian eta bizimodu independentean oinarritutako ikuspegiarantz aurrera egiteko.

Eredu-aldaketa horrek berekin dakar desgaitasuna duten emakumeak eskubideen subjektu oso gisa kokatzea, erabakitzeko gaitasuna aitortzea eta laguntza egokiak bermatzea, haien bizitza-proiektuak, indarkeriarik gabekoak eta behartutako mendetasunik gabekoak eraiki ahal izateko. Egiturazko eraldaketa hori gabe, erantzunak ez dira nahikoak izango, eta emakumeen benetako beharretatik aldentuta egongo dira.

ERREPARAZIOA, EZ ERREPIKATZEKO BERME GISA

Erreparazioa ez da soilik gertatu den kaltearen erantzun gisa ulertu behar, baizik eta ez errepikatze berme gisa ere bai. Horretarako, ezinbestekoa da egiturazko neurriak hartzea indarkeria-, berbiktimizazio- eta bazterkeria-egoera berriak prebenitzeko, batez ere desgaitasuna duten emakumeen kasuan.

Neurri horien artean daude, besteak beste, baliabideen eta zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea, lanbide-heziketa indartzea eskubideen eta desgaitasunaren ikuspegitik, eta inplikaturako sistemen —soziala, instituzionala eta judiziala— arteko koordinazio handiagoa. Alderdi horiek barne hartzen dituen erreparazio bat oinarritzat hartuta soilik lortu ahal izango dira erantzun eraginkorragoak, koherenteagoak eta denboran iraunkorrak.

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK SUBJEKTU POLITIKO GISA LEGITIMATZEA

Desgaitasuna duten emakumeak, indarkeria matxistaren biktima gisa ez ezik, eskubideen eta jakintzaren subjektu aktibo gisa ere aitortu behar dira, politika publikoak hobetzen modu erabakigarrian laguntzeko gaitasuna dutenak, beren esperientzia eta ezagutza kontuan hartuta.

Desgaitasuna duten emakumeak subjektu politiko gisa legitimatzeko, ikuspegi paternalista eta kapazitistak gaingitu behar dira, emakumeak babesa edo laguntza behar duten pertsonatzat soilik ez hartzeko. Desgaitasuna duten emakumeen agentzia aitortzeak parte-hartzerako, entzuteko eta erabakiak hartzeko espazio errealak irekitzea dakar, bai eta haien ahotsak politiken eta baliabideen diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan benetan txertatzea ere.

ERREPARAZIOA TERMINOARI BURUZKO HAUSNARKETA

Topaketan "erreparazioa" terminoari buruzko hausnarketa partekatua ere sortu zen. Zenbait emakumek adierazi zuten, hitzaz haratago, indarkeriak kendutakoa berreskuratzea eta itzultzea dela izendatzen dena: ahotsa, autoestimua, bizitza, norberaren lekua, eskubideak eta duintasuna.

Amaitzeko **ondorio orokor** gisa, egindako azterketak agerian uzten du indarkeria matxista bizi izan duten desgaitasuna duten emakumeen erreparazioak begirada integrala, interseksionala eta eskubideetan oinarritua eskatzen duela. Kontua ez da soilik banakako indarkeria-egoerei erantzutea, baizik eta kaltea eragiten, larriagotzen edo betiketzen duten testuinguru sozial, instituzional eta materialak identifikatzea eta eraldatzea.

Erreparazio eraginkor baterantz aurrera egiteak berekin dakar konpromiso instituzional irmoa hartzea autonomiarekin, bizimodu independentearekin eta eskubideen bermearekin, bai eta indarkeria- eta berbiktimizazio-modu berriak prebenitzearekin ere. Desgaitasuna duten emakumeak beren prozesuaren protagonista gisa eta eskubideen subjektu gisa kokatuko dituen eredu-aldaketa batetik soilik eraiki ahal izango dira erreparaziorako erantzun errealak, iraunkorrak eta eraldatzaileak.

Dokumentu hau abiapuntu bat da. Topaketako ahotsak Elkarteanen urratsak gidatzen jarraituko dute, desgaitasunak dituzten emakume guztientzako erreparazio-eredu, bidezko eta irisgarri baterantz.

*“Geure buruaren erreparazioa
bakoitzak bizi izan dugun historian”*



ASOCIACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE EUSKADI